

2019-2020 Ikasturtea

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**AUTODETERMINAZIOAREN
AZTERKETA JURIDIKOA
EGUNGO TESTUINGURU
SOZIO-POLITIKOAN**

Egilea: Olatz Arrieta Couso

Zuzendaria: Maite Zelaia Garagarza

AURKIBIDEA:

1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA:	2
2. MARKO KONTZEPTUALA: «AUTODETERMINAZIO» KONTZEPTUA	2
3. ESPAINIAR MARKO JURIDIKOA:	5
3.1 Esparru juridiko konstituzionala eta estatutuzkoa:	5
3.2 Autodeterminazioaren izaera espainiar marko juridikoan:	7
3.3 Errealitate sozio-politikoari hurbilpena:	14
3.3.1 <i>Statu quo</i> aren ezaugarriak:	14
3.3.2 Katalunia:	18
3.3.3 Euskal Herria:	20
4. AUTODETERMINAZIOAREN EGIKARITZA ZUZENBIDE KONPARATUAN:	23
4.1 Nork baliatu zuen eskubide hau iraganean eta nork baliatu dezake gaur egun?:	24
4.2 Nazioarte mailako hainbat kasu:	26
4.2.1 Quebec:	27
4.2.2 Eskozia:	29
4.2.3 Silesia:	30
4.2.4 Kurdistan:	31
4.2.5 Kosovo:	33
4.2.6 Montenegro:	34
4.3 Nazioarteko ereduaren irakurketa: Estatuen izaera plurinazionalaren ukapena?:	35
5. ONDORIOAK:	36
6. BIBLIOGRAFIA:	41

1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA:

Autodeterminazioaren auziak gertutik ukitu gaitu Espainian, eta gure kasuan, baita Euskal Herrian bizi garenoi ere. Espainia mailan, guztiok izan dugu Katalunian gertatutakoaren berri, baina Euskal Herrian eta Galizian ere independentzia nahia nabaria izan da historikoki eta baita gaur egun, eta nahi hori estuki lotzen da autodeterminazioaren kontzeptuarekin. Bestalde, nazioarte mailan, garai eta lurralde ezberdinetan izan du zeresana autodeterminazioak. Beraz, aspalditik datorren kontua da, baina aldi berean, gaurkotasun sozial, politiko eta juridiko handia du oraindik.

Ikuspegi subjektibotik, gaurkotasun horrek, autodeterminazioak praktikan izan dezaken eraginak eta autodeterminazioaren ideiak Euskal Herriarekin duen loturak nigan interes berezi bat pizten dute eta arrazoi horiek bultzatu naute gai hau juridikoki landu nahi izatera. Hortaz, nire lanaren helburua ondorengo izango da: autodeterminazioaren egikaritzaz jardutea, honen inguruan dagoen edukia eta arauketa aztertuz, betiere autodeterminazioa Estatu batengandiko sezesioa lortzeko tresna gisa ulertuz; izan ere, autodeterminazioaren bidez posible da, baita ere, populazio batek Estatu baten parte izatera igaro nahi duela adieraztea.

Bukatzeko, metodologiaren inguruko aipamena egin nahiko nuke. Lan honetan planteatzen den azterketa egiteko erabili den metodologia arlo juridikoan egindako ikerketetan ohikoa da, gehienbat doktrinaren, ordenamendu juridikoaren eta jurisprudentiaren analisisian oinarrituta. Jakina den bezala, azpimarratzekoa da egungo osasun krisi larria dela eta, lanaren zati handi bat internet bidez lorturiko materialarekin egin dela eta gai sakontzeko erabilgarriak diren zenbait material lokalizatuta eduki arren, ezin izan direla eskuratu.

2. MARKO KONTZEPTUALA: «AUTODETERMINAZIO» KONTZEPTUA.

Egungo testuinguru sozio-politikoan autodeterminazioak zer suposatzen duen argitu nahian, terminologikoki «autodeterminazio» kontzeptua nola definitzen den zehaztu behar da lehenik. RAEn hitzetan, lurralde jakin bateko hiritarrek euren estatutu politikoaren etorkizunaren inguruan harturiko erabakiaren emaitza litzateke autodeterminazioa¹. LACASTA ZABALZAK ere antzeko definizio bat eskaintzen du

¹ Real Academia Española de la Lengua, «autodeterminación»: *“1. Decisión de los ciudadanos de un territorio determinado sobre su futuro estatuto político”*.

autodeterminazioaren inguruan: ‘en principio, el derecho de autodeterminación es, pues, la capacidad jurídica que detenta un sujeto colectivo, un ‘pueblo’, para decidir plena y libremente sobre su ‘condición política’².

Bestera esanda, herrien borondatearen eta aukeraketa askearen emaitza posiblea da autodeterminazioa, herriek euren identitatea gainontzeko Estatuaren aurrean osotasunez egikaritu ahal izanaz. Gerora, herritarren borondatea eta herriaren etorkizuna eremu ezberdinetan islatuko lirake; izan ere, autodeterminazioa baliatuz, herriek libreki zehaztu ahal izango lukete, esan bezala, euren izaera politikoa, euren garapen ekonomiko, sozial eta kulturala sustatu bitartean.

Definizio hauek oinarri hartuta, bi alderdi ezberdinetan sakondu beharra dago: lehenik, aurreratu daiteke autodeterminazioa eskutik doala erabakitze eskubidearekin, baina honetan sartu baino lehen, ezinbestekoa da autodeterminazioaren ustezko eskubidea egikaritzeko gaitasuna izango lukeen subjektuaz jardutea; hau da, *corpus*aren zehaztapena gauzatzea. Alde batetik, RAEk erabakia hartzeko gaitasuna «lurralde jakin bateko hiritarren» eskuetan uzten du; bestetik, LACASTAren definizioan «herri» kontzeptua baliatzen da. Hortaz, herriaren edo *demos*aren ideia da azaleratzen zaiguna. Izan ere, *demos* kontzeptua grekeratik dator eta «herria» esan nahi du³, autodeterminazio eskubidea egikaritzeko subjektua den herria, alegia. Gai hau nahasmen doktrinal askoren jatorri izan da; izan ere, herri guztiek izan dezakete autodeterminaziorako eskubidea, baina ez daude denak legitimatuta eskubidea egikaritzeko. Orduan, zer ulertu behar da herritzat kasu honetan? Doktrinaren gehiengoarentzat, kolonizaturiko herrialde bat, demokratikoa ez den erregimena jarraitzen duen Estatu baten barnean kokatzen den eta diskriminazioa jasaten duen lurralde bat edo atzerriko menpekotasun armatua sufritzen duena litzateke herriarekin identifikatu daitekeena. Nahiz eta ondorengo definizioak ez duen «herri» kontzeptua osotasunean islatzen, testuinguru honetan aurkitzen den populazio orok izango luke autodeterminazioa egikaritzeko legitimazioa, Nazio Batuen Batzar Orokorraren

² LACASTA ZABALZA J. I., ‘El derecho de autodeterminación’, *Diccionario Crítico de los Derechos Humanos I*, Universidad Internacional de Andalucía, 2000, 297.or.

³ SARTORI G., ‘Democracia’, *Inicio*, 13.zkia, 2019, 117.or.

interpretazioarekin bat eginez⁴. Hala ere, pentsamendu honek zenbait ertz eduki ditzake, geroago azalduko dudanez.

Berrero ere «autodeterminazio» kontzeptuan ardatza jarriaz, esan dugu honek lotura estua duela erabakitzeke eskubidearekin, eta hemen legoke gakoa; izan ere, espainiar Konstituzio Auzitegiaren hitzetan, erabakitzeke eskubideak ez du euskarri juridikorik ez espainiar ordenamenduan ezta nazioarte mailan ere. Horrek indargabetu egiten du herriek izango luketen autodeterminaziorako ahalmen teorikoa.

Konstituzio Auzitegiaren aitortzen hau, besteak beste, urriaren 17ko 114/2017 epaian jasotzen da, zeina Kataluniako Parlamentuak 2017ko irailaren 6an onarturiko Autodeterminaziorako Erreferendumari buruzko Legearen ondorio den. Konstituzio Auzitegiak bertan behera utzi zuen Legea Mariano Rajoyk Gobernuak presidente gisa tarteraturiko konstituzio kontraktasuneko helegitea tramitera onartzean. Magistratuek argudiatu zuten Estatuaren eskumenak inbaditzeaz gain, espainiar Konstituzioaren gorentasunaren, bertan jasoriko sistema demokratikoaren, autonomien estatuaren, espainiar nazioaren banaezinezko batasunaren eta subiranotasun nazionalaren urrapena ematen zela; izan ere, espainiar Konstituzioak subiranotasun nazionalaren, banaezinezko batasunaren eta autonomiaren printzipioak sistemaren oinarritzat aurreikusten ditu bere 1.2 eta 2.artikuluetan⁵.

Erreferentzia hau eginda, epaian zehar adierazten da Estatu espainiarreko lurralde baten independentziarako erreferenduma antolatzea eraso konstituzional ikaragarria litzatekeela; eta horregatik, epaia eragiten duen errekurtoa ezinbesteko tresna dela bortxaketa konstituzional orori aurre egin eta Konstituzio Auzitegiaren autoritatea babesteko. Bestalde, epaiak azpimarratzen du ez dagoela, espainiar ordenamenduaren

⁴ VICIANO PASTOR R., ‘El derecho de autodeterminación en nuestra reciente vida constitucional: análisis y problemática’, *Revista de Derecho Político*, 34.zkia, 1991, 148 eta 149.or.

⁵ Alde batetik, espainiar Konstituzioko 1.2.artikuluak dio: ‘*subiranotasun nazionala Espainiako herrian datza, eta honengandik darizkio Estatuaren botereak*’. Bestalde, espainiar Konstituzioko 2.artikuluak dio: ‘*Konstituzioa Nazio espainolaren banaezinezko batasunean oinarritzen da, hura espainol guztien aberria arrunt eta banaezinezkoa, eta hurrengo hau berrezagut eta garantizatzen du; hots, Espainia osatzen duten nazionalitate eta herrialdeen autonomiarako eskubidea eta denon arteko lagunkidetasuna*’.

kasuan, sezesio-eskubide baten existentzia ezaren inguruko zalantzarik; eta beraz, ezin dela hitz egin, ezta ere, erabakitzeko eskubide batez⁶.

Baina zein da bi kontzeptuen artean dagoen lotura? Erabakitzeko eskubidea demokrazia printzipioan oinarritzen da eta bereziki, Quebecen esperientzia politikoaren ostean indarra hartu duen kontzeptua da⁷. Batzuetan, «autodeterminazio» terminoarekin nahasi eta sinonimo gisa erabiltzen dira nahiz eta berez, izan ez. Hala ere, esan bezala bi kontzeptuen artean lotura estua dago: autodeterminazioaren aitortzea erabakitzeko eskubidearen egikaritzea ekarri dezakeelako, eta beraz, batak bestea eraginaz⁸.

Autodeterminazio kontzeptuari egin nahi zaion hurbilpen honekin bukatzeko, argitu beharra dago autodeterminazioak barne zein kanpo ikuspegiak besarkatzen dituela: kanpo ikuspegia herrien subiranotasunarekin lotzen da, herrien dominazio eza bermatuz; aldiz, barne ikuspegiak demokraziaren egikaritzea suposatzen du, herri orok izanik bere konfigurazio politikoa modu autonomoan erabakitzeko ahalmena⁹.

3. ESPAINIAR MARKO JURIDIKOA:

3.1 Esparru juridiko konstituzionala eta estatutuzkoa:

Esandakoaren arabera, espainiar ordenamenduak ez du autodeterminaziorako aukerarik ezta erabakitzeko eskubiderik aitortzen; are gehiago, espainiar nazioaren banaezinezko batasuna eta subiranotasun nazionala espainiar ordenamenduko printzipio gidari dira. Hemendik abiatuz, espainiar Konstituzioko 2.artikuluak onartzen du, teoriarik, Espainia nazionalitate eta herrialdeez osaturik dagoela eta hauek autonomiarako eskubidea dutela. Gaur egun ordea, badirudi ordenamendu juridikoak espainiar Estatuaren izaera

⁶ KAE 114/2017, urriaren 17koa, 1 eta 2.oinarri juridikoak.

⁷ RIDAO J., *El derecho a decidir*, RBA Libros, Barcelona, 2014, 2.or.

⁸ RUIZ VIEYTEZ E., ‘Regulando el derecho a decidir: una propuesta’, *Naciones y Estados en el siglo XXI, Cuadernos RIEV*, 11.zkia, 2015, 219.or

⁹ MARTÍNEZ JIMÉNEZ A., *El derecho de autodeterminación de los pueblos en el siglo XXI. La secesión, remedio como consecuencia de graves violaciones de derechos humanos*, Doktore Tesia, Universidad Carlos III, Getafe, 2014, 125-128.or.

plurinazionala ukatzen duela praktikan, subiranotasun nazionalaren interpretazio ez-pluralista gailenduz¹⁰.

Trantsizio garaia igaro ondoren (1975-1978), 1978ko espainiar Konstituzioak gai konkretu batzuk erregulatuta utzi zituen: diktadura bat jasatetik Estatu liberal eta demokratikoa izatera igaro zen Espainia; ongizateko Estatu ere bihurtu zen, justizia soziala eta garapen ekonomikoa konbinatuz eta konfesionala zen Estatu akonfesional bilakatu zen. Aldiz, Estatuaren aniztasun nazionalaren egokitzapen eta aldarrikapena ez ziren eskuratu, esandakoarekin bat eginez¹¹. Horrek azalduko luke subiranotasun nazionalaren interpretazio ez-pluralistaren aplikazioa, baina aurreratu genezakeena da, irizpide horrek nolabaiteko talka egin dezakeela Estatu espainiarrak duen konstituzio izaerarekin. Izan ere, Espainia autonomien Estatu da, 17 Autonomia Erkidegoz eta bi hiri autonomoz osatua. Horri, nazionalitate eta eskualdeen existentziaren konstituzio aitortza gehituz, nazionalitate aniztasuna agerikoa da.

Nahiz eta espainiar Konstituzioak autonomien Estatu definitu ez, jakina da Estatu antolaketa honen bidez boterearen goitik beherako egitura eta boterearen banaketa bikoitza jarraitzen dela. Hau da, espainiar Estatuak hau osatzen duten Autonomia Erkidegoei hainbat eskumen esleitzen dizkie espainiar Konstituzioko 148.artikuluaren bidez. Gero, Autonomia Erkidegoek beren eskumen eta ahalmenak Autonomia Estatuetan jasotzen dituzte, espainiar Konstituzioaren edukiarekin bat eginez¹².

Aldiz, subiranotasun nazionalaren interpretazio pluralista gailenduko balitz eta interpretazio hau nazionalitate eta herrialdeen existentziarekin uztartuko bagenu, autodeterminazio aukerak eta erabakitze eskubideak lekua topatzeko aukera izango lukete espainiar ordenamendu juridikoan; izan ere, aurrerago azalduko dudanez, espainiar Konstituzioa demokrazia ez-militante batean oinarritzen da eta horrek suposatzen du, Konstituzioaren edukia aldatzeko aukera badagoela eta zilegi dela.

¹⁰ GAGNON, A., “*Más allá de la nación unificadora: alegato en favor del federalismo multinacional*”, Institut d’Estudis Autonòmics-IVAP, Oñati, 2009, 29 eta 30.or.

¹¹ SANJAUME-CALVET, M., “Federalismo, pluralismo nacional y autodeterminación: la acomodación de Cataluña y Québec”, *Federalismo, autonomía y secesión en el debate territorial español. El caso catalán*, Le Manuscrit, 2015, 14.or.

¹² Autonomien Estatuaren inguruko analisi teoriko sakona egiten duten lanen artean, hauek aipa genitzake: ALVAREZ CONDE, E.; GARCÍA-MONCO, A.; TUR AUSINA, R., *Derecho Autonómico*, Tecnos, Madril, 2013 eta MUÑOZ MACHADO, S., *Derecho Público de las Comunidades Autónomas*, Iustel, Madril, 2007.

3.2 Autodeterminazioaren izaera espainiar marko juridikoan:

Badakigu Konstituzioak autodeterminazioa aurreikusi dezan posible dela, baina zein da autodeterminazioaren izaera? Honen inguruan iritzi kontrajarriak daude.

Aztertu dugunez, urriaren 17ko 114/2017 epaiaren bidez Konstituzio Auzitegiak autodeterminaziorako aukera eta erabakitze eskubidea ukatu zituen. Ildo honetan, badaude aipagarriak diren beste ebazpen batzuk, Kataluniaren autodeterminazio eskubidearen egikaritzaren inguruan jarduten dutenak:

Hasteko, Kataluniako Parlamentuaren urriaren 11eko 92/XII Ebazpenaz hitz egin beharra dago. Ebazpenak agenda sozialaren lehentasunaren eta bizikidetzaren erreperazioaren inguruan jarduten zuen eta bere II. Epigrafeko 15.atalak zioenez, kataluniar erakundeen eta oinarrizko eskubideen defentsan, Kataluniako Parlamentuak:

- a) Estatuko erakundeei bizikidetzaren, kohesio soziala eta Estatuaren pluraltasun politikoaren adierazpen askatasuna bermatzeko eskatzen zien, herritarren aurkako egintza errepresiboak gaitzetsiz eta Konstituzioko 155.artikuluaren aplikazioaren mehatxuak, kataluniar alderdi politikoen legaltasun eza, politikaren judizializazioa eta oinarrizko eskubideen aurka baliaturiko biolentzia kondenatuz, b) kataluniar erakunde eta alderdi politikoei kataluniar guztien pluraltasunaren aukera ezberdinen inguruan jardun eta hauek errespetatzeko eskatzen die, c) Felipe VI Erregearen posizionamendua, kataluniar konfliktoan bere interbentzioa eta 2017ko urriaren 1ean gorputz polizialek baliaturiko biolentziaren justifikazioari uko egin eta kondenatu egiten ditu, d) errepublikako baloreekin bat egiten du, demokratikoa ez den eta iraungita behar lukeen monarkia bezalako instituzio baten abolizioa defendatuz.

Zentzu honetan, Estatuko Kontseiluak¹³ kontsideratu zuen urriaren 25eko 892/2018 Irizpenaren bidez, urriaren 11eko 92/XII Ebazpenaren 15.atalaren bidez Kataluniako prozesu eratzailari («procès») baliozkotasuna eman nahi zitzaioela, nahiz eta jakina den Auzitegi Konstituzionalak prozesua Konstituzio kontrakoa deklaratu duela.

Hemendik abiatuz, 2018ko azaroaren 7ko idatzi bidez Nazioko Gobernuak, Estatuko Abokatuaren ordezkarietzapean, urriaren 11ko 92/XII Ebazpeneko II. Epigrafeko

¹³ Espainiar Konstituzioko 107.artikuluak dio Estatuko Kontseilua Gobernuaren kontsulta-organo gorenarela: *Estatu Kontseilua Gobernu gorengo organo kontsultiboa da. Lege Organiko batek arautuko ditu haren osaketa eta kompetentziak.*

15.ataleko c) eta d) hizkiak aurkaratu zituen, ondorengo argudiatuz: a) espainiar Konstituzioaren 1.3.artikuluaren urrapena, Kataluniako Parlamentuak, bere eskumenetatik at, Estatuburuaren figura gaitzesteagatik, eta b) espainiar Konstituzioaren 1.2, 1.3, 2, 9.1 eta 168 artikuluen eta Kataluniako Estatutuaren 1, 2.4 eta 4.1 artikuluen urrapena, errepublika kataluniar baten sorrera sustatzen duen prozesu soberanista bati jarraipena eman nahi izateagatik¹⁴. Bere aldetik, Kataluniako Parlamentuak zioen 92/XII Ebazpenaren aldarrikapen horiek ez dutela eraginkortasun juridikorik, hiritarroi zuzenduriko deklarazioa izan eta aspirazio politiko baten aitortzea besterik adierazten ez dutelako¹⁵.

Bere aldetik, Konstituzio Auzitegiak ardatza espainiar Konstituzioko 1.3, 56.1 eta 3.artikuluetan jarriarik eta uztailaren 26ko 175/2001 epaiko 4-8 oinarri juridikoetatik abiatuta, adierazi zuen botere publikoek eskumenak eta ahalmen fiduziarioak dituztela, baina ez direla aldiz, oinarrizko eskubideen titular; horregatik, Kataluniar Parlamentuak ezin zuela urriaren 11ko 92/XII Ebazpenaren bidez adierazpen askatasunerako eskubidea egikaritu¹⁶. Ildo horretatik, Auzitegi Konstituzionalak, Nazioaren Gobernuak tarteraturiko aurkapenak sustatuz, Konstituzio kontrako eta baliogabe deklaratu zituen uztailaren 11ko 92/XII Ebazpeneko II. Epigrafeko 15.ataleko c) eta d) hizkiak, uztailaren 17ko 98/2019 epaiaren bidez.

Bestalde, abenduaren 18ko 182/2019 autoaz jardun daiteke. 2018ko uztailaren 12ko idatzi bidez, Estatuko abokatuak, Nazioaren Gobernuaren ordezkari gisa, Kataluniako Parlamentuko 5/XII mozioaren 1-5 atalak aurkaratu zituen. Aurkapena partzialki onartu zen abenduaren 13ko 136/2018 epaian, mozioaren lehen, bigarren eta hirugarren atalak Konstituzio kontrakotzat eta baliogabetzat izendatu zituena. Ondoren, Estatuko abokatuak abenduaren 13ko 136/2018 epaiaren exekuzio intzidentea formulatu zuen, Kataluniako Parlamentuaren 534/XII Ebazpenaren I.1 eta I.2 atalei dagokienez¹⁷. Hauetan esaten zen Kataluniako Parlamentuak giza eskubideen defentsa gauzatzen duela, espainiar Estatuaren urrapenen aurrean. Eskubide horien artean, herrien autodeterminazio eskubidearen babesa adierazten du, hau kataluniar herriaren

¹⁴ KAE 98/2019, uztailaren 17koa, 1.oinarri juridikoa.

¹⁵ KAE 98/2019, uztailaren 17koa, 2.oinarri juridikoa.

¹⁶ KAE 98/2019, uztailaren 11koa, 3 eta 4.a) oinarri juridikoak.

¹⁷ KAA 182/2019, abenduaren 18koa, 1 eta 2.oinarri juridikoak.

oinarrizko eskubide bat den heinean, Parlamentua bera izendatuz eskubidea egikaritzeko subiranotasuna lortzeko tresna gisa, Estatuarekin akordioa lortuz edo lortu gabe¹⁸.

Eduki hau abenduaren 13ko 136/2018 epaiaren aurkako kontsideratu zuen Estatuko abokatuak, aipaturiko ebazpenaren atalak baliogabetzeko eskatuz, esan bezala. Kontrako zentzuan, Kataluniako Parlamentuko letratuaren exekuzio intzidentearen aurkako azaldu zen, Ebazpenak izaera politikoa eta ez loteslea izanik, exekuzio intzidentearen objektu izan ezin zela adieraziz¹⁹. Azkenean, Auzitegi Konstituzionalak abenduaren 13ko 136/2018 epaiaren exekuzio intzidentearen iraungipena deklaratu zuen, Kataluniako Parlamentuaren 534/XII Ebazpenaren I.1 eta I.2 atalei dagokienez. Aldi berean, erabaki bera hartu zuen Auzitegi Konstituzionalak otsailaren 11eko 18/2020 autoaren bidez.

Konstituzio Auzitegiaren antzera autodeterminazioa printzipio teoriko kontsideratzen dutenek, eta ondorioz, erabakitzeko eskubidearen eta autodeterminazioaren aitortzea ukatzen dutenek, bi argudio nagusi baliatzen dituzte: subiranotasun nazionala eta espainiar nazioaren banaezinezko batasuna. Iritzi honen aldekoa da, esaterako, RODRÍGUEZ-ZAPATA PÉREZ Auzitegi Goreneko magistratua, zeinaren hitzetan, Espainiako komunitate historiko baten edo herri baten sezesiorako eskubidearen baieztapena bateraezina den 1978ko Konstituzioak aurreikusten dituen oinarrizko printzipioekin, nahiz eta espainiar Konstituzioko 2.artikuluak nazionalitateen eta erregioen existentzia eta hauen autonomia onartu.

Bere ustez, espainiar Konstituzioko 2.artikuluak hiru oinarrizko baieztapen besarkatzen ditu. Hasteko, Espainiak errealitate etiko bat osatzen duela; alegia, Espainia 1978ko Konstituzioa baino lehen sortu zela. Horregatik, adieraziko luke aipaturiko artikuluak, Konstituzioa nazio espainiarraren batasunean oinarritzen dela. Bigarrenik, egiten den hurrengo baieztapena Espainiaren batasunaren eta zatiezintasunaren ingurukoa da²⁰.

¹⁸ Honekin loturik, ikus daiteke: TAJADURA TEJADA J., “La STC 42/2014, de 25 de marzo, respecto a la Resolución del Parlamento de Cataluña 5/X, de 23 de enero de 2013, por la que se aprueba la declaración de soberanía y del derecho a decidir del pueblo de Cataluña: la introducción del “derecho a decidir” en el ordenamiento jurídico español”, *La última jurisprudencia relativa al Parlamento*, 2016, 57-90.or.

¹⁹ KAA 182/2019, abenduaren 18koa, 1.oinarri juridikoa.

²⁰ LÓPEZ BASAGUREN A., “La secesión de territorios en la Constitución Española”, *Revista de derecho de la Unión Europea*, 25.zkia, 2013, 88.or. Bertan esaten da, batzuen ustez, espainiar

Printzipio honek espainiar nazioaren batasun lurraldetar eta politikoa babesten dituela defendatzen du magistratuak, barne-zatiketa oro edo Europar Batasunean independenteki integratzeko disoluzio oro debekatu. Bukatzeko, hirugarren baieztapena autonomiarako eskubideak osatuko luke. Magistratuaren hitzetan, autonomia eskubidea Konstituzioaren baitan sorturiko eskubidea da, berekiko menpekoa, nazionalitate historikoak nazio espainiarraren ondoren eta azpitik kokatzea eraginaz²¹.

Ildo honetatik, Konstituzio kontrakoa litzateke biztanleria talde bati kontsulta egitea bere lurraldearen etorkizun politikoaren inguruan; izan ere, horrek banaezinezko batasunaren eta subiranotasun nazionalaren printzipioak urratuko lituzke. Kontsideratzen da hau gertatzekotan, espainiar guztiek erabaki beharko luketela, subiranotasun nazionalaren titular gisa, lurralde horren etorkizun politiko. Konstituzioak berak izaera aldakorra duela onartu; eta beraz, erreforma konstituzionalerako prozedura aurreikusi arren, Autonomia Erkidego batek sezesiorako borondatea adieraztean, zilegitasuna bermatze aldera, herri interesdunak, Gorte Orokorrek eta espainiar biztanleria osoak bere baieztapena eman beharko lukete²².

Kontrako posizioan, autodeterminazioa eskubide egikarigarria dela uste dutenek onartzen dute espainiar Konstituzioan ez dela espresuki erabakitzeko eskubidea aurreikusten²³, baina zergatik ote? Konstituzioaren funtzioa Estatu bat eratzea delako; eta beraz, segregazio-aukera aurreikustea kontraesana litzatekeelako. Konstituzioak Estatu baten biziraupena eta unitatea bermatu behar dituen heinean, logikoa da espainiar Konstituzioko 2.artikuluak espainiar nazioaren unitate disolbaezina aurreikustea. Beraz, ezin da eztabaidatu erabakitzeko eskubidea espainiar Konstituzioan espresuki aitortzen denik, baina azpimarratu nahi da hori hala dela Konstituzio batez ari garelako; eta esan bezala, bere funtzioa Estatu bat, erabaki- eta akzio-unitate bakar bat eraikitzea delako:

Konstituzioko 2.artikuluko batasun banaezina elementu ukiezina dela; eta beraz, ezin dela erreforma konstituzional baten objektu izan.

²¹ RODRÍGUEZ-ZAPATA PÉREZ, J., ‘‘Sobre el derecho de autodeterminación y su compatibilidad con la Constitución’’, *Teoría y Realidad Constitucional*, 3.zkia, 1999, 15 eta 16 or.

²² BANDRES SANCHEZ-CRUZAT J. M., ‘‘Derecho de autodeterminación y ordenamiento constitucional’’, *Jueces para la democracia*, 30.zkia, 1997, 33-35 or.

²³ Erabakitzeko eskubidearen oinarri teorikoaren ezaren inguruan, ikus daiteke: BASTIDA FREIJEDO F. J. eta ALÁEZ CORRAL B., ‘‘La acomodación constitucional de la secesión’’, *Fundamentos: Cuadernos monográficos de teoría del estado, derecho público e historia constitucional*, 10.zkia, 2019, 249-254.or.

Estatua arautzen duen Konstituzioaren funtzio nagusia Estatu horren existentzia eta batasuna bermatzea da²⁴.

Ildo honetan, SAIZ ARNAIZek teoria ezberdinak planteatzen dituen Konstituzio batek sezesio eskubiderik aurreikusi ez dezan:

Lehenik, egileak ulertzen du Konstituzioak denboran mugagabeak izateko eta egonkortasun eta iraunkortasun baldintzak betetzeko sortzen direla, iraungipen datarik gabe. Aldiz, sezesiorako eskubidea aitortzeak Konstituzioak sortzen, legitimatzen eta identitate politikoa eskaintzen dion Estatuaren existentziaren aldi baterako borondatea islatuko luke.

Bigarrenez, sezesioaren aitorten ezaren alde jokatzeko dute, egilearen ustez, isiltasun kontzienteek. Hauen bidez, Konstituzioaren egonkortasuna eta iraunkortasuna bermatzen dira, hainbat arauketa gauzatu ez eta horietatik sortuko liratekeen tirabirak ekiditeko: *‘se evita el problema (...) orillando su tratamiento’*. Ildo horretatik, isiltasunak dinamika instituzionalaren alde jardungo luke, sistema politikoaren funtzionamendu ordenatu bat lortuaz; izan ere, sezesioa ahalbidetuko lukeen aurreikuspen batek zalantzan mantenduko luke uneoro Estatu baten errealitatea.

Hirugarrenik, dibertsitatea egokitzeko formulak egongo lirateke; izan ere, egileak dioenez, frontera kokapena ia beti gaur egun ez-legitimo kontsideratzen diren faktoreen bidez zehaztu da. SAIZ ARNAIZen hitzetan, jakina da, egun ezagutzen ditugun frontera gehiengoa injustizia historikoen produktu direla. Horregatik, berezitasun historiko, lurraldetar, kultural eta zenbaitetan ekonomikoen gainera, aipaturiko formulak baliatu izan dira. Hori bai, formula hauek eraginkorrak izan daitezkeen, izaera nazionala mantendu nahi dutenen eta Estatu gainerako kideen arteko adostasuna behar da; izan ere, akordio ezak errebindikazio independentistak sustatuko lituzke, identitate erreklamazioak asetzen ez diren heinean.

Bukatzeko, formaltasunarekin loturiko auzia legoke. Konstituzioak sezesiorako eskubidea eta hau egikaritzeko baldintzak aurreikusiko balitu, organo judicial baten

²⁴ BARCELÓ I SERRAMALERA, M., ‘El derecho a decidir como instrumento constitucional para la canalización de problemas territoriales’, *Fundamentos: cuadernos monográficos de teoría del estado, derecho público e historia constitucional*, 9.zkia, 2016, 374.or.

partaidetza beharrezkoa litzateke sezesiorako baldintzak eta Konstituzioarekiko errespetua betetzen direla ziurtatzeko. Baina non legoke interbentzio judizial horren muga? Nora arte erabaki al izango luke subjektu politiko konstituzionaletara loturik dagoen Epaitegiak, horrenbesteko tentsioa eragiten duen gai baten inguruan?

Planteamendu honen baitan, SAIZ ARNAIZen iritzia ondorengoa da: estrategia konstituzional egokia sezesioa eskubide gisa ez aitortzea da, baina ezin da eskubidea debekatu, besteak beste Estatuaren osotasun lurraldetarraren edo unitatearen inguruko muga materialen edo erreformarako muga esplizitu nahiz implizituen bidez. Hortaz, nahiz eta Estatu baten hausketa antolatzeko sortua izan ez, Konstituzio Zuzenbideak Estatu demokratiko batean sortu daitezkeen sezesio demandei erantzuna eman behar die²⁵.

«Estatu demokratiko» kontzeptua eta demokrazia printzipioa espainiar Konstituzioan aurreikusten dira eta azkena, sistema politikoaren eta ordenamendu juridikoaren egiturazko printzipioetako bat da²⁶. Horrek esan nahi du printzipio gidari gisa jarduten duela Konstituzioko eta ordenamendu juridikoko beste arau guztien sorkuntza-, interpretazio- eta aplikazio-unean. Bestera esanda, ordenamendu juridikoak aurreikusten dituen gainerako printzipioak demokrazia printzipioaren baitan ulertu behar dira.

Ildo honetatik, autodeterminazioa eta erabakitzeko eskubidea demokrazia printzipioa oinarri izanik ulertuko lirateke. Hiritarren erabakitzeko ahalmena printzipio demokratikoaren ondorio naturala litzateke. Erabakitzeko eskubidearen defentsa demokraziaren defentsa litzateke, hiritarroi euren etorkizuna erabakitzea eragozten dieten horien aurrean. Hortaz, nahiz eta erabakitzeko eskubideak euskarri juridikorik topatu ez Konstituzio nazionaletan, erabakitzeko eskubidea egikaritu ahal izatea demokraziaren aplikaziorik gorenena litzateke, herri batek etorkizun bat posible egin ahal izateko bidea. Demokrazia printzipioaren gorentasunaren aurrean, gainerako

²⁵ SAIZ ARNAIZ A., “El Derecho de la Constitución y el derecho a la secesión. Una primera aproximación”, LETAMENDIA, F., AHEDO, I.; ZELAIA, M. (Koord.), *Democracia, ciudadanía y territorialidad*. IVAP, Oñati, 2008, 127-140.or.

²⁶ Espainiar Konstituzioko 1.1.artikuluak: “*Espainia Eskubidezko Estatu sozial eta demokratiko batean erakitzen da, eta beraren balore nagusi bezala, lege araugintza, askatasuna, justizia, berdintasuna eta politika aniztasuna*”.

printzipioak; esaterako, batasun banaezinaren eta legaltasunaren printzipioak, bigarren maila batean geldituko lirarteke, gutxiengoaren babesaren printzipioa bermatu bitartean²⁷; izan ere, Kataluniaren kasuan esaterako, kataluniar herriaren gehiengorik zabalena ere beti izango litzateke gutxiengo bat Estatu mailan.

Zentzu honetan, defendagarria litzateke egungo ordenamendu juridikoaren eta antolaketa lurraldetarraren inguruan eztabaidatu eta proposamen berriak egin ahal izatea. Hori adierazi zuen Konstituzio Auzitegiak 2014ko martxoaren 25ean emandako epaian, nahiz eta gerora ez den aukera honen aldeko azaldu.

Bertan esaten da erabakitze eskubidearen inguruan interpretazio konstituzional bat egitea posible litzatekeela; izan ere, legaltasun printzipioa, demokrazia printzipioa eta gutxiengoaren babesaren printzipioa bat datoz Konstituzioarekin. Hortaz, ulertu liteke Kataluniaren kasuan adibidez, bertako herritarren erabakitze eskubidea aspirazio politiko bat izan eta bertara iristea posible litzatekeela, betiere legaltasun konstituzionalean oinarrituriko prozedura bat jarraituz eta legitimitate demokratikoaren, pluralismoaren eta legaltasunaren printzipioak errespetatuz²⁸.

Esandakoari jarraiki, autodeterminazioaren printzipioak eskubide egikarigarriaren *statusa* eskuratu zezakeen, espainiar Konstituzioa ez baita, lehenago aipatu bezala, militantziako demokrazia batean oinarritzen, konstituzionalak ez diren printzipio eta baloreak jarraitzen ez dituzten aukerak errespetatuz. Teorian, espainiar demokraziak, bere konfigurazio konstituzionalarekin bat eginez, ez du helburuen defentsa debekatzen eta ez ditu Konstituzioarekin bat ez datozen ideologiak epaitzen: Konstituzioak demokrazia plural eta pluralista bat ezartzen du, tutoretzapekoa ez dena; eta beraz, ez ditu subjektu eta taldeak legaltasunetik kanporatzen, nahiz eta hauek bat ez etorri Konstituzioak babesten dituen zuzenbidearen ideiarekin edo antolaketa sozialarekin²⁹.

Konstituzioak proposamen berriak onartzeko aukera eskaintzen du, betiere, pluralismoan, zilegitasun demokratikoan eta legaltasunean oinarrituriko prozedura bat

²⁷ TUDELA ARANDA J., ‘‘El derecho a decidir y el principio democr tico’’, *Teor a y Realidad Constitucional*, 37.zkia, 2016, 479 eta 480.or.

²⁸ KAE 42/2014, martxoaren 25ekoa, 2.oinarri juridikoa.

²⁹ BARCEL  I SERRAMALERA, M., ‘‘El derecho a decidir... *op.cit*, 377.or.

jarraituz gero, esan bezala. Gauzak horrela, teorian, sistemaren aldaketa planteatzen duen alderdi politiko batek bere jarduera gauzatu ahal izango luke, betiere Alderdi Politikoen Lege Organikoaren edukia bortxatzen ez duen bitartean³⁰.

Azken ideia honekin loturik, Herri Batasuna, Euskal Herritarrok eta Batasuna alderdi politikoen kasuez hitz egin daiteke, gainerik bada ere. Bi alderdi politiko hauen legaltasun ezaren aitorpena eta disoluzioaren agindua erabaki zituen Auzitegi Gorenak 2003ko martxoaren 27ko epai bidez. Ondoren, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak espainiar Auzitegi Gorenaren erabakia indartu zuen 2009ko ekainaren 30eko epaiarekin, irmo bihurtu zena 2009ko azaroaren 6tik aurrera. Uste zen erakunde politiko hauek ETA talde terroristaren gorputz politikoa zirela; eta bestalde, gure gaiari dagokionez, kontsideratu zen alderdi politiko hauen jarduerak giza eskubideak, eta bereziki, printzipio demokratikoa urratzen zituztela³¹. Finean, legez kontrako egintzak gauzatu izanagatik eta ez horrenbeste marko konstituzionalaren eraldaketa edo haustura sustatu izanagatik. Beraz, ondoriozta daiteke autodeterminazioa eta sezesioa helburu politiko gisa programan edukitzeak ez lukeela alderdi politiko bat legez kontrako bihurtu beharko.

3.3 Errealitate sozio-politikoari hurbilpena:

3.3.1 *Statu quo*aren ezaugarriak:

Espainiar Estatuak jarraitzen duen egiturara bueltatuz, argi dago Espainia osatzen duen Autonomia Erkidego bakoitzean bizi den eta bizi izan den errealitate historiko, politiko, kultural eta soziala ezberdina dela. Horren ondorio dira, eskumen gehiagoren esleipena eta eskubide historikoen existentziaren onarpena Autonomia Erkidego batzuen alde. Honekin adierazi nahi dudana da espainiar Estatuak ez duela identitate bakar bat partekatzen eta ezin zaiela, Espainia osatzen duten Autonomia Erkidegoei, espainiar identitatearekin bat egin dezaten inposatu. Hortaz, zergatik ez aurreikusi, autodeterminazioaren bidez, sezesiorako aukerarik?

³⁰ 6/2002 Lege Organikoa, 2002ko ekainaren 27koa, Alderdi Politikoei buruzkoa.

³¹ IGLESIAS BÁREZ, M., “La Ley de Partidos Políticos y el Test de Convencionalidad. El diálogo entre el Tribunal Constitucional y el Tribunal Europeo de Derechos Humanos en torno a la ilegalización de Herri Batasuna y Batasuna”, *Teoría y Realidad Constitucional*, 25.zkia, 2010, 243-297.or.

Ikusi dugu autodeterminazioa baliatuz Autonomia Erkidego bat espainiar Estatutik banatzeko aukera aurreikustea posible litzatekeela, nahiz eta gaur egun oraindik ez dagoen araututa. Ondorioz, aukera hau aurreikusteko bi bide posible aztertuko ditut jarraian:

Alde batetik, erreforma konstituzionala baliatu daiteke. NUEVO LOPEZek dioen moduan, erreformaren behar juridikoa komenigarritasun politikoaren arabera da, Konstituzioa errealitate sozial eta politikora egokitzeko aukerak murrizten diren neurrian³². Espainiar Konstituzioak 166 eta 169 artikuluen artean erregulatzen du erreforma konstituzionala, bi modalitate bereiziz:

Hasteko, Konstituzioaren erreforma oso edo partziala burutu daiteke, honek atariko tituluari, oinarrizko eskubide eta askatasun publikoei eta Koroari eragitean. Kasu honetan, ondorengo baldintzak bete behar dira: Kamara bakoitzean (Kongresua eta Senatua) 2/3ko gehiengoak onartu behar du erreforma, Gorteen berehalako disoluzioa eman behar da, hautatutako Gorte berriek erabakia onetsi eta testu konstituzional berriaren inguruko ikerketa burutu behar dute, Kamara bien 2/3ko gehiengoak onartuz, eta Gortek onartu ondoren, erreferenduma antolatu behar da, berrespenerako. Bigarrenik, Konstituzioaren beste edozein atal erreformatzean ondorengo baldintzak bete daitezten galdatzen da: proiektua Kamara bakoitzeko 3/5ngo gehiengoak onartu behar du eta Gortek erreforma onartuta, proiektua berretsi behar da Kameratako baten kideen 1/10ak eskatuz gero.

Bereizketa hau eginda, espainiar Konstituzioko 166.artikuluak igorpena egiten du espainiar Konstituzioko 87.1 eta 87.2 artikuluetara erreforma konstituzionala hasteko legitimazioa nork duen zehazteko. Hauen arabera, erreforma prozedura hasteko ahalmena dute Gobernuak, Kongresuak, Senatuak (hots, Parlamentuko Kameratako edozeinek) eta Autonomia Erkidegoetako Batzarrek.

Erreforma konstituzionala aztertuta, beste alde batetik espainiar Konstituzioko 1.xedapen gehigarria baliatu ahalko litzateke, Eskubide Historikoak aintzat hartuz³³.

³² NUEVO LOPEZ P., ‘‘Reforma constitucional y reforma del Estado autonómico’’, *Revista de estudios políticos*, 182.zkia, 2018, 284.or.

³³ Espainiar Konstituzioko 1.xedapen gehigarriak honakoa dio: *Konstituzioak babestu eta onartzen ditu forudun lurraldeetako eskubide historikoak. Forudun erregimenaren gaurkotze orokorra, dagokionean, Konstituzio eta Autonomia Estatutuen barnean egingo da.*

Artikuluak lurralde foruzaleak aipatzen ditu, hauek direlarik eskubide historikoen titular. Baina zeintzuk dira foru-lurralde horiek? Felipe V.a Erregeak emandako Nueva Plantako Dekretuen ondoren euren berezko foruak mantendu zituztenak, bai botere publikoen antolaketa propioari dagokionez eta baita materia jakin batzuetan indarrean zegoen berezko erregimen juridikoari dagokionez³⁴.

Lurralde horiek, gaur egun, euskal lurraldeak dira: espainiar Estatuaren osaketan lau euskal lurraldeek bizi zituzten berezko egoerek euskal Eskubide Historikoen biziraupena eragin zuten, Felipe V Erregeak Nueva Plantako Dekretuko ondorioetatik at utzi zituelarik, esan bezala. Nafarroa Erreinu gisa mantendu eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako berezitasun foralak errespetatu zituen, irla instituzional bilakatuz uniforme eta unitarioa zen Monarkia baten barnean³⁵.

HERRERO DE MIÑONEk dio kategoria juridiko bilakaturiko kontzeptu politikoa direla Eskubide Historikoak. Eskubide Historikoen bidez herri batek bere nortasunaren inguruan duen kontzientzia adieraziko luke, herriak osatzen duen gorputz politikoak kutsu juridiko bat eskuratuz. Hori da foruek izan duten funtzioa iraganean eta euskal historiografian. Bestera esanda, Eskubide Historikoek egitate batzuen historikotasunari egingo liekete erreferentzia; hots, gorputz politiko propio, ezberdin eta suntsiezin bati³⁶.

TUDELA ARANDAREN hitzetan, euskal lurraldeen jatorrizko legeak dira Eskubide Historikoak, independentzia primitibo baten adierazpena³⁷.

Hau esanda, Eskubide Historikoen inguruko auziak gatazka ezberdinak planteatu izan ditu; hortaz, Konstituzio Auzitegiaren aztergai izan dira. Esaterako, ondorengo epaiak Eskubide Historikoen inguruko azterketa egin izan dute, kronologikoki; otsailaren 2ko

³⁴ HERRERO Y RODRÍGUEZ DE MIÑON M. eta DE AREILZA J. M., *Idea de los Derechos Históricos*, Espasa Calpe, Madril, 1991, 14 eta 15.or.

³⁵ MONREAL ZIA, G., ‘Los derechos históricos vascos: poder constituyente limitado o instituciones concretas’, *Iura Vasconiae: revista de derecho histórico y autonómico de Vasconia*, 16.zkia, 2019, 52-53.or.

³⁶ HERRERO Y RODRÍGUEZ DE MIÑON, M., ‘Qué son y para qué sirven los Derechos Históricos’, *Real Academia de Ciencias Morales y Políticas*, 44.zkia, 1999, 313.or.

³⁷ TUDELA ARANDA J., ‘La disposición adicional primera de la Constitución y los nuevos Estatutos de Autonomía. La historia como legitimación de la autonomía’, *Revista de Administración Pública*, 173.zkia, 2007, 145.or.

11/84 otsailaren 6ko 16/84, abenduaren 18ko 123/84, uztailearen 29ko 94/85, apirilaren 26ko 76/88 edo maiatzaren 3ko 86/88 epaiak, nahiz eta Auzitegi Konstituzionalak epai guztietan pentsamendu bera islatu ez.

Eztabaidak eztabaida, kontua da Eskubide Historikoak Konstituzioak aurreikusten dituela, baina, zenbaterainoko irismena dute? Posible litzateke autodeterminazioa baliatzeko aukera aitortzea Eskubide Historikoen bitartez? EZEIZABARRENAk dio Eskubide Historikoen autodeterminaziorako eskubidearen egikaritzea erraztu eta legitimatu dezaketela, Euskal Herriari eta bere lurraldeei aitortzen zaien subjektibotasun politiko eta nazionala aplikatuz, negoziatzeko eta alde biko adostasun bat lortzeko³⁸.

Autodeterminazioa baliatzeko aukera aurreikusteko bi bideak planteatuta, Katalunia eta Euskal Herriaren kasuez jardungo dut jarraian; izan ere, iruditzen zait hauek direla, aztertzen ari naizen gaiari dagokionez, Autonomia Erkidego esanguratsuenak:

Honen harira, esan genezake, ideologia ezkertiarrek, eta zehazki, nazionalismo euskaldun eta katalanek diktadura frankistaren aurka elkarrekin jardun zutela. Hortaz, 1960ko hamarkadatik aurrera euren arteko bizikidetzaren politikoa estutzen joan zen. Hala ere, bizitako egoeraren ostean, ezkertiarrek ez ezik, Kataluniaren kasuan eskuindarrek ere askatasunaren, amnistiaren eta 1932ko Autonomia Estatutuaren berrezarpenaren alde egin zuten Kataluniako Batzarraren bidez. Pixkanaka, demokrazia-autonomia binomioa estatu osora zabaldu zen eta 1976rako, oposizioak osaturiko Demokrazia Koordinazioak kataluniar eta euskaldunen Eskubide Historikoen aitortzea aldarrikatu zuen. Ildo honetatik, frankismoaren ostean Espainia mailan demokraziak deszentralizazio prozesu bat eragingo zuenaren ideia gailendu zen³⁹. Zentzu honetan, agintari nazionalistek Eskubide Historikoen existentzian oinarritzen dituzte euren aldarrikapenak⁴⁰.

³⁸ EZEIZABARRENA X., "Derecho de libre determinación y derecho a decidir: nueva soberanía y Derechos Humanos en el siglo XXI", *Cuadernos Deusto de Derechos Humanos*, 90.zkia, 2017, 63.or.

³⁹ QUIROGA FERNÁNDEZ DE SOTO A., "Amistades peligrosas de la izquierda y los nacionalismos catalanes y vascos", *Historia y Política: Ideas, Procesos y Movimientos Sociales*, 20.zkia, 2008, 100.or.

⁴⁰ KEATING M., "La integración europea y la cuestión de las nacionalidades", LETAMENDIA, F., AHEDO, I.; ZELAIA, M. (Koord.), *Democracia, ciudadanía y territorialidad*. IVAP, Oñati, 2008, 68.or.

Hemendik abiatuz, gaur egun, demanda plurinazionalen eta demanda hauen aurrean Gobernuak duen aurkako jarreraren arteko talkaren adibide dinamiko eta ezagunetarikoa da Espainiaren kasua⁴¹.

3.3.2 Katalunia:

Nabaria da Katalunia eta espainiar Gobernuaren arteko harremanean gabezia eta desadostasun ugari daudela; izan ere, Euskal Herrian edo hein txikiago batean Galizian gertatzen den bezala, nazionalismo katalanak, berezko hizkuntza, historia, zuzenbide zibil eta Eskubide Historikoetan oinarritzen denak, indarra du gaur egun eta Kataluniarentzat beste etorkizun bat defendatzen du: nazioaren aitortzea.

Kataluniar nazionalismoaren indarraren adibide dira, besteak beste, Katalunian egin diren bi erreferendumak. 2014koan, independentziaren aldeko 1.861.753 boto bildu ziren; hots, kataluniar biztanleriaren %80,76ak Espainiarengandik banandu nahi zuen. 2017koetan, %43ko partaidetza egon zen. Horien artean, 2.044.038 pertsonak baiezkoa eman zioten independentziari; hau da, botoen %90,2k⁴².

Azken erreferendum honen inguruan, Kataluniako Parlamentuak Autodeterminaziorako Erreferendumaren Legea onartu zuen (irailaren 6ko 19/2017 Legea, 72 aldeko boto eta 10 abstentziorekin, 52 zinegotziren faltan). Eduki aldetik, lehen artikuluetan, Espainiarekiko independentzia lortzeko erreferendumaren inguruan jarduten du arauak, erabakitzeko ahalmena kataluniar herriari aitortuz eta Kataluniako Parlamentuak herriaren borondatea egikaritzeko funtzioa duela adieraziz⁴³.

⁴¹ MAJOR, M. A, *From the nation-state to plurinational democracy: the redefinition of nationalist conflicts in the context of European integration*, Doktore tesia, Leioa, 2017, 175.or.

⁴² EL PERIODICO, *Resultados del referéndum en Catalunya: con datos por municipios, comarcas y provincias*, 2017ko urriaren 6a.

⁴³ Hasteko, irailaren 6ko 19/2017 Legeko 1.artikuluak dio: *‘Esta Ley regula la celebración del referéndum de autodeterminación vinculante sobre la independencia de Cataluña, las consecuencias en función de cuál sea el resultado y la creación de la Sindicatura Electoral de Cataluña’*. Ondoren, bigarren artikuluan ondorengoa esaten da: *‘El pueblo de Cataluña es un sujeto político soberano y, como tal, ejerce el derecho a decidir libremente y democráticamente su condición política’*. Bukatzeko, 3.artikuluak dio: *‘1. El Parlamento de Cataluña actúa como representante de la soberanía del pueblo de Cataluña. 2 Esta Ley establece un régimen jurídico excepcional dirigido a regular y garantizar el referéndum de autodeterminación de Cataluña. Prevalece jerárquicamente sobre todas las normas que puedan entrar en conflicto con la misma, en tanto que regula el ejercicio de un derecho fundamental e inalelible del pueblo de Cataluña. 3. Todas las autoridades, personas físicas y jurídicas que participen directa o indirectamente en la preparación, celebración y/o implementación del resultado del referéndum quedan amparadas por esta Ley, que desarrolla el ejercicio del derecho a la autodeterminación que forma parte del ordenamiento jurídico vigente’*.

Aurrerago, 4.2.artikuluaren arabera, kataluniar herriari erreferendumean planteatuko litzaioken galdera jasotzen da: *Nahiko zenuke Katalunia errepublika formako Estatu independente bat izatea?* 4.3 artikuluaren arabera erreferendumeko emaitza loteslea izango litzateke; eta beraz, aldeko boto gehiago egongo balira kontrako baino, ondorioa Kataluniaren independentzia litzateke, Legeko 4.4.artikuluaren arabera⁴⁴.

Kataluniar Parlamentuak Zazioarteko Zuzenbiderako igorpena egin zuen autodeterminazio eskubidearen egikaritza defendatu eta erreferenduma ospatu ahal izateko; izan ere, egile batzuen ustez, autodeterminazioa 1966ko NBEko Giza Eskubideen Itunen bidez positibizaturiko eskubidea da. Nazioarteko testuek, autodeterminazioari erreferentzia egitean «eskubide» kontzeptua baliatzen dute eta horrek indartu egiten du autodeterminazioaren ideia, errespetu eta legitimitate *status* handiagoa lortzen baitu autodeterminazioak «eskubide» izaera aitortuta⁴⁵.

Aldi berean, kataluniar Parlamentuak espainiar Konstituzioko 96.artikuluari ere erreferentzia egin zion, bertan esaten delarik Espainiak berresten dituen nazioarteko hitzarmenak barne ordenamendu izatera igarotzen direla⁴⁶. Hala ere, badakigu Mariano Rajoyk Gobernuko presidente gisa tarteraturiko Konstituzio kontrako helegitea tramitera onartu eta Konstituzio Auzitegiak legea bertan behera utzi zuela⁴⁷.

Erreferendum hauetatik abiatu eta urte batzuk atzera eginez gero, 2006ko Autonomia Estatutuak ere kataluniar nazionalismoak eskuratu nahi duen Espainiarekiko bereizketa hori defendatzen zuen. Estatutua Kataluniako Parlamentuak zein kataluniar herriak onartu zuen erreferendum bidez eta bertan esaten zen Katalunia nazioa zela⁴⁸.

⁴⁴ Prozesu soberanistaren inguruan, ikus daiteke: MOLINA ÁLVAREZ DE CIENFUEGOS I., ‘Secesión y unidad en democracias avanzadas’, *Política exterior*, 186.zkia, 2018, 56-64.or.

⁴⁵ LÓPEZ PAYERO L., *El derecho de autodeterminación de los pueblos: análisis crítico del marco constitucional español desde la filosofía jurídico-política*, Diss. Universidad de Oviedo, 2014, 18.or.

⁴⁶ Nahiz eta Legeak aipatu ez, espainiar Konstituzioaren 10.2.artikuluak ere erreferentzia egiten die Espainiak berretsiriko nazioarteko hitzarmenei: *Konstituzioak onartzen dituen oinarritzko askatasun eta eskubideei dagozkien arauak honela adieraziko dira, hots, Giza Eskubide Orokorren adostasunez eta berauei dagozkien tratatu eta nazioarteko akordioen arabera hauek Espainiak berretsi baititu*

⁴⁷ Legea bertan behera utzi zen KAE 114/2017, urriaren 17koa, epaiaren bidez.

⁴⁸ 6/2006 Lege Organikoa, 2006ko uztailaren 19koa (2006ko uztailaren 20ko EAO, 172.zkia)

Bestalde, ikusi dugu Kataluniako Parlamentuak ebazpen ezberdinak eman dituela Kataluniako herriaren autodeterminazio eskubidearen egikaritzaren inguruan, ondoren, Estatuko abokatuak aurkatu dituenak Nazioaren Gobernuko ordezkari gisa.

Legeen, erreferendumen eta ebazpenen baliozkotasun edo baliozkotasun eza aztertu gabe, azpimarratu nahi dudana da bai 2006ko Autonomia Estatutuaren, Autodeterminaziorako Erreferendumaren Legearen, bi erreferendumen eta ebazpen ezberdinen atzean aldarrikapen sendo bat dagoela. Esan bezala, kataluniar nazionalismoak gaur egun indarra du eta Kataluniarentzat beste etorkizun bat nahi du:

Hasteko, defendatzen du Katalunia, Espainiako beste lurraldeekin alderatuz, ezberdina dela, historia, hizkuntza, kultura, zuzenbide zibil eta instituzio berezkoak dituelako edota izan dituelako. Ildo beretik, kontsideratzen du Katalunia nazio bilakatu behar dela, Espainiara lotuta jarraitzen duen bitartean guztiz loratuko ez delako. Bestalde, sinesten du autogobernu gehiago eskuratuta erabakitze-askatasuna eta beharren arabera modu batera edo bestera gobernatzeko ahalmena eskuratuko dituela Kataluniak. Kulturari dagokionez, autogobernu gehiago lortuta, euren hizkuntza eta literatura indartuko lirake eta hezkuntza-sistema propioa ezarri ahal izango lukete. Aldi berean, arlo ekonomikoan, finantza-baliabideen gaineko kontrola eskuratuko lukete, politika fiskal eta zerga-sistema propioa izanaz⁴⁹.

Laburbilduz, biztanleriaren zati bat ez dago ados Kataluniak egun bizi duen egoerarekin eta praktikak erakutsi du erabaki politiko edo judizialek ez dutela herriaren nahia isiltzen. Bide judiziala ez da gai izan konponbide politikoa behar duen egoera bati erantzuna emateko, eta horregatik, auziak bere horretan datza⁵⁰.

3.3.3 Euskal Herria:

Euskal Herriari dagokionez, mende batzuk atzera egin beharra dago mugimendu nazionalisten sorrera ulertzeko.

Nahiz eta euskal lurraldeak Gaztelako Erresumaren parte ziren XII. menderako, lurralde bakoitzak bere foruak eta sistema fiskal propioa mantendu zituen, dakigunez. Aldi

⁴⁹ MANZANARES CARPINTERO C. M., "Cataluña un pueblo sin nación", *TLATEMOANI Revista Académica de Investigación*, 26 zkia, 2017, 114-117.or.

⁵⁰ LÓPEZ BASAGUREN A., "Demanda de secesión en Cataluña y sistema democrático. El *procés* a la luz de la experiencia comparada", *Teoría y realidad constitucional*, 37.zkia, 2016, 181-185.or.

berean, lurralde bakoitzak bere aduanak zituen eta espainiar ejertzitua ez zen bertan sartzen. XVI. mendean ordea, espainiar monarkiak zentralizazio prozesu bat hasi zuen. Kontua da, garai hartako liburuek dagoeneko "Euskal Herria" kontzeptua baliatzen zutela Araba, Gipuzkoa, Nafarroa, Bizkaia, Behe Nafarroa eta Solak osatzen zuten lurraldeaz jarduteko, eta XVII. mendean, hauen arteko bateratasun nahia piztu zen.

Guda Karlistetan, Isabel liberalekin eta Carlos tesi absolutista eta foralistekin aliatu zen. Azkenean, liberalak garaile atera ziren eta errealtate euskalduna Gaztelan barneratzeko saiakerak sustatu egin ziren. Egoera honetan, lurralde guztiak batzeko nahia indartu beharrean, erregio bakoitzak bere independentziaren alde egin zuen, baina arrakastarik gabe; izan ere, errealtate euskaldunak Gaztelan barneratzen amaitu zuen. Egoera horretan, bereziki Bizkaian Sabino Aranaren eskutik, mugimendu independentistak hasi ziren. Honek defendatzen zuen teoria nazionalistan hiru printzipio nagusi bereizten ziren: etnizismoa, antiespainolismoa eta teokrazia.

Hasieran, Aranak kultura autoktono bat indartzeko zailtasunak topatu zituen, komunitatearen gehiengoak ez zuelako euskaraz hitz egiten eta Euskararen beraren dialekto ugari bereizten zirelako. Hala ere, zailtasunak zailtasun, 1865ean Biskai Buru Batzarra sortu zen, EAJ alderdi politikoaren (1895) aitzindaria. Bertan koka daiteke euskal nazionalismoaren sorrera, egungo ideologia politikoa dena eta aspektu sozial, kultural, linguistiko eta historikoak besarkatzen dituena.

II. Errepublikarekin, aukera autonomistaren legitimazioa heldu zen eta 1931ko maiatzetik aurrera, euskal Estatutua lortzeko prozesua hasi zen, nahiz eta 1936ra arte arrakastarik izan ez. Ondoren, frankismoa heldu zen: autore askoren hitzetan, euskal nazionalismoa izan zen erregimen frankistak suspertzen zuen unitarismoaren onuradun, nahiz eta 40 urte itxaron behar izan bere jaraunspena kobratzeko. Erregimenaren jazarpen eta errepresioarekin, frankismoak Aranak defendatzen zuen berezitasun euskalduna sustatu zuen⁵¹.

Bilakaeran gehiago sakondu gabe, egia da aipaturiko berezitasun euskaldun hori defendatua eta goraiatua izan dela urteetan zehar, eta gaur egun ere mantendu egiten da. Ideia horren defentsa gauzatzen dute; esaterako, alderdi abertzaleek. Hauen

⁵¹ GARCÍA DE CORTÁZAR F. eta AZCONA J. M., *El nacionalismo vasco*, Historia 16 Argitaletxea, Madril, 1991, 217 eta 218.or.

eskaintza politikoak konparatzearen, EH BILDU eta EAJren planteamenduak aurkeztuko ditut jarraian. Izan ere, hauek izan dira Eusko Legebiltzarreko Autogobernu Ponentzian aipatu alderdiok defendatu dituzten planteamenduak eta ondoren testu ezberdinetan jaso direnak 2019ko abenduan⁵²:

Alde batetik, EH BILDUK, bere eskaintza politikoan, autodeterminazioari atal bat eskaintzen dio aldarrikatuz Euskal Herria nazioa dela eta Euskal Herriak askatasun osoz erabaki behar duela bere etorkizuna. Esaten da baita ere, Euskal Herria denontzat eraiki beharreko subjektua dela eta horretarako aurreikusten diren tresna politiko eta ekonomiko guztiak baliatu behar direla. Bukatzeko, Euskal Herriaren erabakitzeko eskubidea eta lurraldetasuna defendatzen ditu, oinarri demokratikoen parametroak jarraituz, errealismo politikoan oinarrituz eta aniztasuna errespetatuz, Herrien Europaren alde⁵³.

Beste alde batetik, EAJk ere Euskadiren nazio izaera aitortzen du, baina Espainiarekin harremanetan. Autonomia Estatutua, Kontzertu Ekonomikoa eta EAE eta Nafarroaren garapen ekonomiko, sozial eta politikorako behar diren baliabideen aldeko defentsa gauzatzeko prest agertzen da, autogobernu maila altuagoa lortu nahian. Ildo horretatik, Euskadiren aitorten nazionala defendatzen du, baina betiere Estatuarekin aldebiko erlazio bat mantenduz eta subiranotasunaren egikaritzea konpartitu bat sustatuz⁵⁴. Hala ere, EAJren egungo ideologia honetatik zertxobait urruntzen den arren, aztertzen ari naizen gaiari dagokionez zeresanekoa den proiektu batek aipamena merezi duela iruditzen zait: Ibarretxe Plana.

2001eko uztailaren 12an Juan Jose Ibarretxe Lehendakari berrizendatu zutenetik, bere diskurtsotan askotan jardun zuen euskal herritarren erabakitzeko eskubidearen errespetuaz. Pentsamendu horretatik jaio ziren Ibarretxe Plana eta bere aitzindari izandako Bizikidetasunagatiko Ituna. Ibarretxek zioenez, *“Euskadi es un pueblo con identidad propia y con capacidad para establecer su propio marco de relaciones”*,

⁵² Alderdi politikoek aurkezturiko testuak eta Ponentziaren bilakaerari buruz sakontzeko, ikus; <http://www.legebiltzarra.eus/portal/web/eusko-legebiltzarra/ponencias-autogobierno/xi-legislatura>

⁵³ <https://ehbildu.eus/#eskaintza>

⁵⁴ EAJ PNVren hauteskunde programa 2019-2023 bitarterako hauteskunde orokorretarako: <https://www.eaj-pnv.eus/es/adjuntos-documentos/19093/pdf/programa-electoral-elecciones-generales-2019>

Euskal Herriaren autodeterminaziorako eskubidearen defentsan. Nahiz eta azkenean proposamenari uko egin zitzaion kontrako 313 boto, aldeko 29 boto eta 2 abstentziorekin Diputatuen Kongresuan, Euskal Herriarekin loturiko egitura lurraldetarraren inguruan planteatzen duen erreforma aipatzekoa da, zeinak hiru ardatz nagusi jarraitzen dituen: Euskal Herriaren identitatea, Estaturik gabeko nazio gisa; autodeterminaziorako eskubidea, eskubide demokratiko bezala eta foruen birgizarteratzea, Euskal Herriak dituen Eskubide Historikoen eskubide eta gaurkotze ahalmen moduan⁵⁵.

4 AUTODETERMINAZIOAREN EGIKARITZA ZUZENBIDE KONPARATUAN:

Autodeterminazio eskubidearen inguruko arauketaren oinarria Nazioarteko Zuzenbidean eta zuzenbide konparatuan aurkitzen dugu. Eskubide honen inguruan jarduten duten tresna juridikoak ugariak dira. Nazioarte mailako araudiari erreparatzen badiogu, Nazio Batuen Erakundearen (aurrerantzean NBE) Gutuna, 1960ko abenduaren 14ko NBEko Batzar Orokorraren 1514 (XV) Ebazpena, 1966ko abenduaren 16ko Nueva Yorkeko Eskubide Zibil eta Politikoen eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunak eta 1970eko urriaren 24ko NBEko Batzar Orokorraren 2625 (XXV) Ebazpena ditugu, besteak beste.

Tresna juridiko hauek ideia bera errepikatzen dute: eskubideen berdintasunaren eta herrien determinazio askearen printzipioei jarraiki, herri guztiek dute, libreki eta kanpo esku-sartzerik gabe, euren izaera politikoa xedatzeko eta euren garapen ekonomiko, sozial eta kulturala sustatzeko ahalmena, Estatu orok hau errespetatzeko obligazioa izanik. Errespetatzeaz gain, Estatu guztiek dute, akzio bateratu edo indibidual bidez, eskubideen berdintasunaren eta herrien determinazio askearen printzipioa sustatzeko obligazioa eta nonbait printzipio horiek aplikatuko ez balira, Estatuak NBERi asistentzia eskaini beharko liokete, aplikazio hori gauzatzen dela bermatzeko⁵⁶.

Dena den, jarraian azalduko dudan moduan, egungo nazioarteko tresna juridikoek islatzen duten ideia bilakaera historiko baten emaitza da.

⁵⁵ VIVANCOS COMES M., *La propuesta de nuevo estatuto político de la comunidad de Euskadi. Análisis de un estatuto de segunda generación*, Diss. Universitat de València, 2011, 118-176.or.

⁵⁶ 1960ko abenduaren 14ko NBEko Batzar Orokorraren 1514 (XV) Ebazpena.

4.1 Nork baliatu zuen eskubide hau iraganean eta nork baliatu dezake gaur egun?

Egile batzuen ustetan autodeterminazio eskubidearen jatorria frantziar edo amerikar Iraultzan dagoen arren, doktrinaren gehiengoaren ustez autodeterminazio eskubideak MANCINI⁵⁷ formulaturiko nazionalitateen printzipioan du oinarria. Horrela, printzipio honen inguruko formularen sorrera XIX. mendean kokatzen zen eta mende batez iraun zuen. Baina zertan zetzan printzipio honek? MANCINIren hitzetan, nazionalitate bat pentsamendu komun bat da, printzipio komun bat, helburu komun bat. Nazionalitatea pertsona guztiek osatzen duten jarraipena da, hizkuntzan, geografian ala historian oinarrituz, pertsona hauek jatorri berdin bat onartzen dute eta batuki jarduten dute helburu zehatz bat lortzearren⁵⁸.

Lehen Mundu Gerran garaile atera zen alderdiak nazionalitateen printzipioaren alde egin zuen eta Wilson amerikar presidentek bere programan barneratu zuen, Bakerako Hamalau Puntuen barnean, adieraziz herri orok bere buruaz xedatzeko eskubidea zuela. Nazioarteko Zuzenbide positiboan, kontzeptua lehenengoz 1919-1920ko Bake Tratatuetan azaldu zen, baina praktikan, itun sekretu, interes ekonomiko edo estrategia argudio oro printzipioaren aplikazioaren gainetik zegoen. Are gehiago, printzipioa ez zen aplikagarritzat hartu guda irabazi zuten lurralde kolonizatuen kasuan, tutoretzapeko lurralde izendatu zirenak.

Aldiz, Bigarren Mundu Gerra amaitzean, Ameriketako Estatu Batuek eta Sobietar Batasunak Europako azpi-potentzien inperio kolonialekin amaitu nahi zuten eta herri orok bere buruaz xedatzeko eskubidea 1945eko urriko Nazio Batuen Erakundeko Gutunean jaso zen. Herriak izanik eskubide hau egikaritzeko legitimatuak, NBEk «herri» kontzeptua ondorengo hiru ezaugarri betetzen zituzten lurraldeei esleitu zien: banaketa geografikoa, ezberdintasun etnikoa eta metropoliarekiko menpekotasun politikoa⁵⁹.

⁵⁷ VICIANO PASTOR R., *op.cit.*, 146.or.

⁵⁸ LETAMENDIA F., “La autodeterminación: evolución histórica, tratamiento constitucional y polémicas actuales”, *Revista Viento Sur*, 71.zkia, 2003, 85-87.or.

⁵⁹ *Idem.*

Azalpen honi jarraiki, ondorioztatu dezakegu autodeterminazioaren printzipioa koloniei zuzendu izan zaiela historikoki. Honen bidez, Europako inperio nagusien desegitea eman zen, Estatu-nazioak sortuz. Gaur egun ordea, nork baliatu dezake autodeterminaziorako eskubidea?

Historikoki autodeterminazioak izan duen erabilgarritasunari jarraiki, kolonialismora menderatuta leudeken herriek autodeterminazioa baliatu ahal izango lukete, metropoliarekiko distantzia handira aurkituko balira edo azken honekin alderatuz ezberdintasun etniko nabariak balituzte. Bigarrenik, atzerriko potentzia baten menpe leudeken herriak ere, betiere menpekotasun hori indarraren erabilerarekin edo okupazio militararekin egikarituko balitz, legitimo izango lirатеke autodeterminazioa baliatzeko. Bestalde, eskubide demokratiko parlamentarioak urratuko litzaizkiekeen Estatu bateko gutxiengo edo biztanleek ere egikaritu ahal izango lukete autodeterminazioa. Gainera, talde etniko, indigena edo nabariki zapalduriko gutxiengoak ere ahalmendun lirатеke. Azkenik, *de facto* eta *de iure* herriei euren autogobernu eta arlo ezberdinetako garapenerako aukera egikaritzea debekatuko balitzaie, herri horiek ere autodeterminazioaren aplikazioa alegatu ahal izango lukete. Beraz, ikuspegi orokor batetik, Nazioarteko Zuzenbideak bi kasutan aurreikusiko luke autodeterminaziorako eskubidea: kolonialismo egoeratan eta lurralde baten edo bertako hiritarren oinarriko eskubideak ez errespetatzean⁶⁰.

Gauza da ordea, egungo Estatu plurinazionaletan estaturaz azpiko mugimendu nazionalistak badaudela, aurreko egoeretako batean aurkitu gabe, kokatzen diren Estuarekiko independentzia eskuratu nahi dutenak. Zuzenbide Konstituzionala bere aldetik, ez da gai izan mugimendu nazionalista hauek botere konstituzionalaren inguruan egindako kritikak baretu eta proposatzen dituzten aldaketa edo interpretazio konstituzional berriei erantzuna emateko. Edo behintzat, ez mugimendu horien zati handi batek nahiko lukeen eran.

SAIZ ARNAIZen hitzetan, aditu konstituzionalak ez diote garrantzirik eman filosofo politikoek egindako lanari, non demokrazia nazioanitzetan teoria konstituzionalak dituen ezaugarri gatazkatsuak identifikatu izan diren. Ezaugarri horiek ondorengoak lirатеke: a) neutraltasun kulturala Estatu demokratiko liberalen barnean adierazteko

⁶⁰ ASENSI E. L., ‘El desafío catalán. Un análisis descriptivo.’, *Barataria: revista castellano-manchega de ciencias sociales*, 20.zkia, 2015, 57.or.

ezgaitasuna, b) Konstituzioen bidez gizarte nazioanitzetan gertatzen den menpekotasuna aitortu eta bideratzeko gaitasun eza eta c) estatu nazioanitzetan, bizikidetzaren bermatzeko neurrien ezarpena, Konstituzioaren muga formaletatik haratago. Ildo beretik, Estatuaren eta nazioaren arteko harremanek lurzoru emankor bat eskaintzen dute, gaur egun, Estatu demokratikoaren eta Estatu barnean kokatzen diren *demosen* izaeraren inguruan erronka berriak plazaratzeko⁶¹.

Erronka horien gorpuztea nazioarte mailako hainbat kasuren bidez ezagutuko dugu jarraian.

4.2 Nazioarte mailako hainbat kasu:

XIX. mendetik geroztik, Estatuaren antolaketari dagokionez, Estatu-nazioaren eredua gailentzen da. Estatu-nazioetan, kontsideratzen da nazioa Estatu bat sortzeko elkarturiko pertsona edo hiritarren multzoa dela, kultura ezaugarriak kontuan hartu gabe eta nazio politiko bat inposatuz⁶². Ildo honetatik, Konstituzioek Estatu zentralaren nagusitasuna bermatu izan dute, eta oraindik ere bermatzen dute, Estatu ezberdinen izaera plurinazionala ukatze aldera⁶³.

Testuinguru honetan, demokrazia nazionaletatik haratago doazen sistema demokratiko nazioanitzduak aldarrikatzen dira, egungo Estatu-nazioen ideia aldatuz⁶⁴. Historikoki Estatu-nazioa eskubide berdintasuna eta demokrazia bermatzeko subjektu egokia kontsideratu bada ere, aldarrikapen nazionalista ezberdinek Estatu-nazioaren eredu uniforme batera estuki lotuta egotearen egokitasun eza adierazi izan dute⁶⁵. Zentzu honetan, egile askok diote aldaketa horren adibide egokia Europar Batasuna izan

⁶¹ SAIZ ARNAIZ, A., *op.cit.*, 79 eta 80.or.

⁶² DÍAZ-POLANCO H., “Autodeterminación, autonomía y liberalismo”, *Autonomía Indígenas. Diversidad de culturas, igualdad de derechos*. 6.zkia, 1998, 6.or.

⁶³ TIERNEY S., “Naciones sub-estado y el Estado constitucional: incrustar principios normativos en una constitución plurinacional”, LETAMENDIA, F., AHEDO, I.; ZELAIA, M. (Koord.), *Democracia, ciudadanía y territorialidad*. IVAP, Oñati, 2008, 95.or.

⁶⁴ MAJOR A., *op.cit.*, 2017, 316-319.or.

⁶⁵ KEATING M., “So many nations, so few states: territory and nationalism in the global era”, GAGNON A, TULLY J, *Multinational Democracies*, Cambridge University Press, Cambridge, 2001, 64.or.

daitekeela, non eroso sentitzen ez den kidea erakundetik atera daitekeen (adibidez, *Brexit*)⁶⁶.

Hemendik abiatuz, mundu mailan, asko eta asko izan dira autodeterminazioarekin loturiko auziak: Belgikan, Flandes eta Valonia erregioen zatiketa aldarrikatu izan da, belgikar Estatuaren disoluzioa lortzeko; Danimarkan, Feroe Uharteetan autodeterminazio erreferenduma antolatu zen eta Groenlandian baiezkoa atera zen Estatutik independizatzeko galderaren aurrean. Frantzian, nazionalista korsikarrek erreferenduma ospatu nahi zuten, nazionalismo bretoiak Britainiaren nazio izaera aldarrikatzen zuen eta Ipar Euskal Herrian, *Zazpiak Bat* goiburuak indarra izan du. Malvina Uharteetan, norgehiagoka lurraldetar bat egon da Argentinako Errepublikaren eta Erresuma Batuen artean, baina autodeterminazio eskubidearen egikaritzaren bidez, 2013ko erreferendumean biztanleriaren gehiengoak Erresuma Batuen parte izan nahi zuela adierazi zuen. Bestalde, saharar herriak autodeterminazio erreferenduma ospatu dadin eskatzen du, espainiar Estatuaren babesarekin Mohamed VI erregeak herriaren aurka duen jarrera intransigentearen aurrean, etab.

Nazioarteko auzi bakoitzaren gaineko azterketa egiteko ezinezkotasunaren aurrean, Quebec, Eskozia, Silesia (Polonia), Kurdistan, Kosovo eta Montenegroren kasuak landu ditut, hauen artean sailkapen bat eginaz. Lehen hirurek Espainiaren antzeko egitura instituzional eta konstituzionala jarraitzen dutela esango nuke eta antzekotasun horretatik abiatuz, uste dut eredu izan daitezkeela Katalunia, Euskal Herria edo beste herri batzuen auziei erantzuna emateko. Aldiz, azken hiruak Europa mendebaldeko herrialdeen testuinguruetatik zertxobait aldentzen dira eta hori ere aberasgarria iruditzen zait, ikuspegi ezberdin bat eskaintze aldera.

4.2.1 Quebec:

60ko hamarkadan Quebeceko gizartean eraldaketa sakon bat eman zen, “iraultza lasaia” deituriko mugimendu separatista bat sortu zuena. Mugimendu horren aldeko agertu zen Quebeceko Alderdia (Parti Québécois) deituriko asoziazio politikoa, 1976an probintzia hauteskundeak irabazi eta aldaketa ugari barneratu zituen: lan-kodea erreformatu, soldata igoerak onartu, Quebeceko hizkuntza ofizial bakarra frantsesa

⁶⁶ MAJOR A., *op.cit.*, 316-319.or.

bilakatu eta hizkuntzaren inguruko arauketa indartu; eta are gehiago, ekimen separatista bat proposatu zuen.

Giro hartan, 1980.urtean erreferenduma ospatu zen, zeinaren bidez biztanleriari eskatu nahi zitzaion gobernuak Quebec eta federazioaren arteko subiranotasun-asoziazio harreman berri bat negoziatzea. Federazioarekin lor zitekeen akordio horren bidez Quebec-ek berezko legeak onartzeko ahalmena eskuratuko zuen, zergak kobratuko zituen eta harremanak sortuko zituen nazioarte mailan, Kanadarekin asoziazio ekonomiko bat mantendu eta txanpon berdina konpartituko zuten bitartean. Azkenean, ezetza gailendu zen botoen %59,6arekin.

Aurrerago, 1992an, Konstituzioa erreformatzeko akordioa egin zen. Beste neurri batzuen artean, Konstituzio hark Quebec Kanada barnean kokatzen zen gizarte ezberdin bat zela onartzen zuen, hizkuntza, kultura eta zuzenbide zibil propioak izateagatik. Dena den, akordioak ez zituen nahiko aldeko boto lortu eta bertan behera gelditu zen. Testuinguru hartan, militanteagoa zen Quebec-en aldeko mugimendu separatista bat berrindatu zen. Mugimendu honen aldekoa zen Parti Québécois, 1994an hauteskunde probintzialak irabazi eta 1995ko urriaren 30erako erreferendum berri baten ospakizuna sustatu zuena. *“Quebec subirano bilakatzea onartzen duzu?”* galderaren aurrean, separatistek botoen %49,4a eskuratu zuten. Kalkulatu zen biztanleria frankofonoaren %60ak banaketaren alde egin zuela, baina biztanle anglofono eta alofonoek gogor eutsi zioten ezezkoari⁶⁷.

Hala ere, Kanadarengandik separatzeko gogoia mantendu zenez biztanleriaren zati baten artean, horri erantzuna eman asmoz, 2000.urtean Argitasun Legea onartu zen, zeinaren bidez Kanada bere banaketa propioa baimentzen zuen lehen Estatu demokratikoa bilakatu zen. Berez, Kanadako Zuzenbide Konstituzionalak eta Nazioarteko Zuzenbideak ez zuten Quebeceko herriaren aldebakarreko sezesiorik baimentzen, baina Quebeceko herriaren borondate demokratiko handiaren aurrean, ulertu zen aktore politikoek negoziatu egin beharko zutelako printzipio konstituzionalekin bat eginaz,

⁶⁷ OLGUÍN, F., “La cuestión de Quebec y la unidad de Canadá: retos, riesgos y perspectivas”, *Revista mexicana de política exterior*, 51.zkia, 1997, 136-164.or.

borondate horri erantzun bat emateko. Negoziazio horren ondorioa aipaturiko Argitasunaren Legea izan zen⁶⁸.

Legearen bidez, onartu zen Estatu batek ezin duela edozein bide baliatu bere lurraldearen barnean kokatzen den biztanleria jakin bat, bere borondatearen aurka, Estatu horretan mantentzeko. Gauzak horrela, Argitasun Legeak sezesio saiakera berri bat gauzatzeko baldintza zehatzak aurreikusten zituen⁶⁹. Ildo honetatik, Kanadako Auzitegi Gorenak unitatea eta dibertsitatea kontziliatzeko beharrezkotasuna azpimarratu zuen, adieraziz politikak eraiki beharko lukeela teoriarik konplexua den ideiarik eta praktikotasunaren arteko zubia⁷⁰.

Gaur egun, Quebec Kanadako probintzia bat izaten jarraitzen du, baina nire ustez, azpimarratzekoa da sezesioa ahalbidetzen duen arau juridiko bat onartu izana kontsentsu demokratiko bidez. Kanadaren kasuan, lurralde batek Estatu barnean duen ‘deserosotasunari’ aurre egiteko modua zoru demokratiko eta prozedura legezko bat onartzean oinarritu da, Argitasunaren Legea delarik horren emaitza. Esan genezake, hein handi batean, Espainiako auzian, autodeterminazioaren eskatzaileek Kanadak harturiko bidea eredu gisa erabiltzea proposatu izan dela⁷¹.

4.2.2 Eskozia:

2007.urtean *Scottish National Party* (SNP) alderdi politikoa garaile atera ondoren hauteskundeetan, eskoziar nazionalismoak indarra hartu zuen. Testuinguru hartan, eskoziar Gobernuak plan bat landu zuen, parlamentarien gehiengoak onartua, Eskoziaren independentziara iristeko erreferenduma antolatu eta ospatzeko. Beste alderdian, Erresuma Batuko Gobernuak adierazi zuen ez zuela Eskoziaren independentziarako erreferendumaren aurka egingo, demokrazia printzipioari jarraiki. Hala, Eskoziaren independentziarako erreferenduma aurrekari garrantzitsua izango zen

⁶⁸ SAIZ ARNAIZ A., *op.cit.*, 137 eta 138.or.

⁶⁹ NÚÑEZ HUESCA R., ‘Así se blindó Canadá frente a su problema separatista’, *La Gaceta*, 2017ko uztailearen 24a.

⁷⁰ KEATING M., *Plurinational Democracy*, Oxford University Press, Oxford, 2001, 169-171.or.

⁷¹ Quebec eta Kanadaren inguruko analisi sakonago baterako, ikus daiteke: LÓPEZ BASAGUREN, A., ‘De Quebec al País Vasco’, *FP Foreign Policy Edición Española*, 32.zkia, 2009, 51-55.or.

europar testuinguru politikoan, kontinentean kokatzen diren gainontzeko nazioei begira; izan ere, Eskozia ez da urrun kokatzen den iraganeko inperio baten kolonia⁷².

Hasieran, eskoziar Parlamentuak ez zuen eskumenik erreferendumik antolatzeko, baina Edinburgoko Akordioaren bidez ahalmen hori esleitu zitzaion, betiere eskoziar Parlamentuak erreferenduma 2014a baino lehen antolatzen bazuen, britainiar Parlamentuak antolatzen zuen beste erreferendumen batekin bat etortzen ez bazen eta bozketan egiten zen planteamendua bi erantzun posibleko galdera bakarra bazen. Ildo honetatik, Erresuma Batuko aldarrikapen nazionalisten ideologia gorpuztu zen, zeinaren ustez autodeterminazio eskubidea aldarrikatzen duen subjektu orok jatorrizko Estatuarengandik banandu behar duen, erdibideko soluziorik bilatu nahi izan gabe⁷³.

Azkenean, aipaturiko baldintza horiek beteaz, 2013ko abenduaren 17an *Scottish Independence Referendum Act 2013* onartu zen, Eskoziaren independentziarako erreferenduma 2014ko irailaren 18rako aurreikusiz. Erreferendumean, %84,59ko parte hartzearekin, %44,7a ziren aldeko botoak⁷⁴.

Zentzu honetan, MAJOREk dio Eskozian bigarren erreferendum bat ospatuko balitz, sentikortasunez eta naturaltasunez egingo litzatekeela, demokraziaren egikaritza bermatuz; izan ere, Eskozia independentea baitzen Ingalaterrarekin batera Erresuma Batua osatzea erabakitzean⁷⁵. Esan daiteke, hortaz, Eskozia eta Erresuma Batuaren arteko auzian printzipio demokratikoaren gailentasuna izan dela erreferenduma baimentzeko giltzarria.

4.2.3 Silesia:

Silesiaren kasua bereziki ezaguna izan ez arren, auzi honek badu nolabaiteko antzekotasuna Ipar Euskal Herria eta Hego Euskal Herriaren arteko kultur elkar loturarekin. Gogoratu behar da, iraganean, Silesia Europa mendebaldeko ikatz eta burdin mehatze garatuenetakoa izan zela. XIX. mendeko bigarren erdialdean zonaldea

⁷² DORREGO DE CARLOS A., "El referéndum sobre la independencia de Escocia", *Cuadernos de pensamiento político FAES*, 34.zkia, 2012, 85 eta 86.or.

⁷³ KEATING M., "So many nations... *op.cit*, 61.or.

⁷⁴ LÓPEZ BASAGUREN A., "Escocia", *Revista española de derecho constitucional*, 104.zkia, 2015, 136-139.or.

⁷⁵ MAJOR, M. A., *op.cit*, 117-120.or.

industrializatu eta polonieraz hitz egiten zuten biztanleen artean germanizazio prozesu bat hasi zen. Biztanleria zati hau gainontzeko poloniarrengandik bereizita bizi zen, germanizazio prozesuaren ondorioz eskuraturiko onura politiko eta ekonomikoekin.

Urteetan zehar nazionalista poloniar eta alemaniarren artean emandako tirabira militarren ostean, 1921ko martxoaren 20an erreferendum bat ospatu zen, ondorengo emaitza lortuaz: 707.393 boto (%60) Alemaniaren alde eta 479.365 boto (%40) Poloniaren alde. Testuinguru horretan, Alemaniak Silesia osoa herrialdean barneratzeko eskaera egin zuen, Polonia eta aliatuek banaketa bat eskatzen zuten bitartean. Azkenean, Versalleseko Tratatuaren bidez sorturiko Nazioen Elkarteko (SDN) komite batek Silesia Alemania eta Poloniaren artean banatua izan zedin agindu zuen (Silesiako eremu industrializatuko 4/5 Poloniarri esleituz), betiere herriaren bateratasun ekonomikoa mantenduz.

II. Mundu Gerra ostean, Poloniak onura lurraldetar handiak eskuratu zituen eta besteak beste, Silesia osotasunean errekonstratu zuen. Egoera horretan, alemaniar asko Silesiatik kanporatuak izan, eta kontrako zentzuan, beste eremu batzuetan bizi ziren poloniarrek Silesiara bidali ziren zonalde hori jendeztatzeko helburuz. Geroztik, silesiarrek eta hauen ondorengoek euren eskubidea aldarrikatu izan dute, euren antzinako Silesiako jabetzak berreskuratu nahian (adibidez, 2003an Nürembergen 100.000 bat pertsona bildu ziren).

Silesiaren kasua Europan oraindik ezezaguna den nazio apatridarena da⁷⁶, non bertako biztanleria ez den guztiz alemaniarra ezta guztiz poloniarra sentitzen. Horregatik, Silesiako herria euro-erregio izendatzeko planteamendua mahaigaineratu izan da⁷⁷, ipar eta hegoaldeko euskal lurraldeen kasurako ere bideragarria izan daitekeen planteamendua, alegia.

4.2.4 Kurdistan:

Otomandar inperioa erortzearekin, arabiar eta turkiar nazionalismoak jaio ziren eta horiekin batera, kurduak ere euren nazionalismoaren alde egin zuten, Estatu independente bat eratu ahal izateko. Aldiz, 1920ko Sèvresko Tratatuan Estatu

⁷⁶ MAJOR, M.A, *op.cit*, 167.or.

⁷⁷ PEDRERO HERNÁNDEZ M A., *El reencuentro de Alemania y Polonia y el papel de la OTAN y de la Unión Europea en su reconciliación: (relevancia de ese proceso histórico en tres periódicos españoles)*, Tesis doctoral, Universidad Carlos III de Madrid, 2014, 40-436.or.

kurduaren existentzia aitortzen bazen ere, existentzia hori ez zen gorpuztu Turkiak zuen proiektuaren berehalako egonkortzeagatik eta Frantziak eta Ingalaterrak Ekialde Ertainean zituzten interesengatik. Ondorioz, kurduak Turkia, Iran, Siria eta Iraken artean banandu ziren, 1916ko Sykes-Picoteko, 1921eko Ankarako eta 1923ko Lausanako Tratatuak sinatzearen bidez. Gauzak horrela, kurduen nortasuna gutxiengo baten kontzeptuarekin parekatu zen eta gaur egun, historikoki atzerritarrek zapalduko nazio gisa aurkezten dira.

Horregatik, kurduak gutxiengo gisa dagozkien eskubideak erreklamatu izan dituzte, europarren aurrean minoria izaera eta Estatu ezberdinetan jasandako errepresioa frogatuz. 1930 eta 1940 urteen artean, mugimendu kurdu ezberdinak sortu ziren Irak, Siria eta Turkian. Mugimendu kultural gisa jardun zuten, baina hauetatik berehala jaiotzen ziren lehen alderdi politiko kurduak. Bestalde, kurduak altxamenduak ere egin zituzten: Ararat mendikoa (1927) eta Dersingoa (1938) Turkian eta Mustafa Barzaniren matxinada (1930-1931n eta 1943-1945ean) Iraken.

Irak, Siria eta Turkiako Gobernuztat kurduak mehatxu bilakatu ziren euren osotasun lurraldetarrari eta egonkortasunari zegokionez. Hortaz, kurduen "arazoari" aurre egiteko estrategia ezberdinak baliatu ziren: pluralismotik errepresiora, ondoren asimilaziora eta eraldaketa demografikoetara eta azkenik, genozidiotara. Hau izan zen kurduen egoera 1991n Golkoko Gerra amaitu zen arte.

Orduan, Estatu bat ezarri zen *de facto* irakiar Kurdistanen. Geroztik, kurduak egonkortasuna eta demokrazia oinarritzat zuten programa bat sustatu zuten Kurdistango Gobernu Erregionalak (GRK) kontrolatzen zituen herrialdeetan aplikatzeko. Nahiz eta urteetan zehar erregioko gobernu ezberdinen eskutik jazarpena eta sarraskia jasan, nahiz eta euren etnia ukatua izan eta nahiz eta euren eskubide politiko eta kulturalak indargabetu, kurduen erreklamo autonomiko eta independentistak indartu egin ziren. Pixkanaka, Siria eta Iraken arteko gatazkak gori-gori zeuden bitartean, kurduak hainbat lurralderen gaineko kontrola eskuratu zuten, eurek gobernatzen zituztelarik eta eurenak kontsideratzen zituztelarik.

Tirabirak tirabira, GRKk Estatu Islamiarraren aurkako garaipen ezberdinak lortu zituen eta garaipen hauekin 2017ko irailaren 25eko erreferenduma heldu zen, Massoud Barzani presidentearen eskutik, Kurdistanek Irakengandik independentzia lortzeko. Nahiz eta Estatu asko kontra azaldu eta Kurdistani isunak egotzi, erreferenduma ospatu

egin zen eta baiezkoak botoen %92a izan ziren. Aldiz, Irakeko Lehen Ministroak, Haider al-Abadik, erreferenduma Konstituzio kontraktatzat, Iraken existentzia baketsuaren aurkako erasotzat eta erregiorako arriskutzat hartu zuen. Hortaz, Iraken erantzuna ondorengoia izan zen: irakiar indarrek, milizia txiiten buru izanik, Bagdaden kurduak eskuraturiko lurraldeen gainean (adibidez, Kirkuk edo Sinjar, biak historikoki kurdu kontsideratuak) zuen kontrola errekuperatzeko ofentsiba prestatu zuten⁷⁸.

Ofentsiba interbentzio armatu bat izan zen, 2017ko urriaren 15ean gauzatu zena eta gaur egun, oraindik ere, irauten duena. Beraz, indarrez isildu da Kurdistango herriaren independentzia nahiaren kontua. Hortaz, esan daiteke, Kurdistanen kasuan ezarritako *status quo* politiko eta lurraldetarra kolokan jartzea egotzita, erreferendumaren bidezko autodeterminaziorako bidea isildua izan zela.

4.2.5 Kosovo:

Kosovo lurralde gatazkatsua izan da historikoki. Agintari eta erregimen ezberdinen kontrolpean eta herrialde ezberdinen barnean kokatuta egon izan da. Hasieran, albaniar eta serbiarrek herrialdeagatik borrokatu zuten, eta azkenean, serbiar inperioaren kontrolpean egon zen luzaroan. I eta II. Mundu Gerrekin, Kosovoren eremu nagusi bat Albaniaren pean geratu zen eta gero berriro Serbiaren pean. Garai batean, Tito mariskalaren menpe egon zen, beste garai batean Milosevicen menpe.

Bilakaera luze hartan, Kosovoko lurraldeak izaera ezberdina izan du, batzuetan autonomia maila handiagoa eta besteetan autonomia maila txikiagoarekin, baina beti izan da politika desfaboragarriak, jazarpena eta indarkeria jasan dituen lurraldea. Giro hartan, kosovar hiritarrek nazio aitortzea eta sezesiorako eskubidea erreklamatu zituzten. Ildo horretatik, 1991ko urriaren 18an gizarteak Kosovoren independentzia deklaratu eta nazioarteko komunitatearen aitortzea eskatu zuen, nahiz eta jaso ez.

Hasieran gizartearen borroka eta aldarrikapenak baketsuak izan baziren ere, babesgabeziaren aurrean Kosovoren Liberaziorako Armada (ELK) sortu eta tirabira ugariren ostean, NATOk parte hartu behar izan zuen. Parte hartze honen ondoren, Kosovoren gaineko nazioarteko administrazio bat ezarri zen, Segurtasun Kontseiluak

⁷⁸ OSPINA MORALES G., "La formación del Kurdistán y la seguridad societal. Un análisis del gobierno kurdo en el norte de Irak, los grupos minoritarios y la lucha contra el Estado Islámico", *Revista Forum*, 13.zkia, 2018, 12-17 eta 27.or.

gainbegiratzen zuena. Gerora, 1999ko ekainaren 10eko 1224 Erresoluzioaren bidez, administrazio horretarako bi instantzia sortu ziren, bat militarra, bestea zibila.

2005eko azaroaren 14an, NBEko idazkari orokorrak Martti Ahtisaari Kosovora bidali zuen Kosovoren etorkizuneko *statusaren* inguruan eztabaidatzeko, baina serbiar eta kosoviarren arteko adostasunik lortu ez zenez, Martti Ahtisaarik Kosovoren independentzia gainbegiratua aitortzea gomendatu zuen, aurretik inoiz gertatu ez zen bezala, Estatu kide baten desegitea sustatuz erregio horretako bakearen eta segurtasunaren alde.

Pixkanaka, independentziaren aldeko bidea eraiki zen, 2008ko otsailaren 17an gertatu zena. Erabaki hau aldebakarreko ekintza juridiko bidez onartu zuen Kosovoko Parlamentuak, Kataluniako aldebakarreko independentzia deklarazioarekin nolabait alderagarria izan daitekeena. Baina, Kosovoren kasuan, nazioarte mailan lorturiko onespina izan da funtsekoa; izan ere, Kosovoren Errepublika 74 herrialdek onartzen dute gaur egun, zeinaren artean dauden AEB, Europar Batasuneko herrialde gehienak eta NATO. Aldi berean, Kosovo onartua izan zen Nazioarteko Diru Funtsean eta Munduko Bankuan onartu zuten, nahiz eta Serbia, Errusia, Espainia, Eslovakia, Errumania, Txipre, Grezia eta Txinak ez duten gaur gaurkoz Errepublikatzat hartzen⁷⁹.

4.2.6 Montenegro:

Jugoslaviaren partiketen ostean, NBEk osotasun lurraldetarraren alde egin bazuten ere, hau osatzen zuten Estatuak bi multzotan bereizi ziren. Batetik, bateratasun etniko eta garapen industrial handia zutenek aitorten internazionala eskuratu zuten; hori da, adibidez, Esloveniaren kasua, 2004an Europar Batasunean barneratu zena. Aldiz, Montenegron esaterako, 1922tik aurrera, osotasun lurraldetarraren apurketaren aldeko mugimenduak hasi ziren, ezberdintasun etniko, kultural eta historikoak argudiatzen zituzten nazionalismoen eskutik.

Tirabira politikoen emaitza gisa, 2003ko erreforma konstituzionalaren bidez Serbia eta Montenegrok osaturiko Estatuja jaio zen. Batasun honek nazioarteko komunitatearen eta bereziki Europar Batasunaren interesak ase zituen osotasun lurraldetarra eta fronteren jarraipena bermatze aldera, independentzia planak indargabetuaz. Hala, Estatuak kanpo

⁷⁹ PORTILLA GÓMEZ J. M., ‘El devenir histórico y legal de Kosovo’, *Anuario Mexicano de Derecho Internacional*, 2012, 67-87.or.

defentsa eta politikarekin, NBEan parte hartzearekin eta gutxiengoaren eta giza eskubideen babesarekin loturiko gaiez eta Errepubliketako bakoitza ekonomiaz, monetaz, aduanaz eta barne politikez arduratuko zen, besteak beste. Batasun horrek ordea ez zuen Estatu bakar horrekin loturiko identitaterik sustatu. Horren froga da Konstituzioak hiru urteko epean, alde bakarrez, erreferendum bidez, Estatua desagiteko ematen zuen aukera. Testuinguru horretan, 2006ko maiatzaren 21ean Montenegroren separazioaren aldeko erreferenduma ospatu eta bozketan independentziaren aldeko jarrera gailendu zen botoen %55,5arekin.

Ikus daitekeenez, egonkortasunaren aldeko neurriek ezin izan zioten polarizazioari aurre egin eta azkenean, Montenegroko biztanleriaren gehiengoaren nahia, Montenegro Estatu independente bilakatzea, posible izan zen⁸⁰.

4.3 Nazioarteko ereduen irakurketa: Estatuaren izaera plurinazionalaren ukapena?

Nazioarte mailako kasu ezberdinak ezagutu ostean, ondorio argi bat atera daitekeela esango nuke: Estatuaren izaera plurinazionalaren ukapena. Estatu unitaristetako aldarrikapen nazionalistak asetzeko ordea, gakoa pluralismo nazionalaren instituzionalizazio eta konstituzionalizazioa litzateke. Horrela, liberalismo eta autonomia indibiduala maila kolektibora zabalduko lirateke, maila kolektibo nazionalera kasu honetan⁸¹. Ildo honetatik, post-subiranotasun garai baten hasiera sortuko litzateke: subiranotasuna Estatuaren monopolioa izan ordez, aktore eta instituzio ezberdinek bere egikaritzea aldarrikatu ahal izango lukete, zentzu banagarri eta banatuan⁸².

Aldaketa hau lortuaz eta sistema demokratiko plurinazionalak gailenduaz, demokrazia printzipioa bermatuko litzateke; izan ere, erabakitze eskubidearen defentsa, aldi berean, demokrazia printzipioaren defentsa da⁸³. Horrek testuinguru berri bat planteatzen digu *demosaren* zehaztapenari dagokionez: herria da bere etorkizuna

⁸⁰ MORALES ESCOBAR A., ‘Independencia de Montenegro, consecuencia natural de autodeterminación y guerras’, *OASIS*, 12.zkia, 2007, 171-176.or.

⁸¹ MAJOR A., *op.cit.*, 316-319.or.

⁸² KEATING M., ‘La integración europea... *op.cit.*, 65.or.

⁸³ TUDELA ARANDA J., ‘El derecho a decidir... *op.cit.*, 479-480.or.

erabakitzeko ahalmena duen subjektu eskumenduna⁸⁴. Ildo honetan, BENGOETXEA CABALLEROren balorazio batekin ados agertzen naiz. Bere hitzetan, erabakitzeko eskubidea autogobernu demokratikoaren adierazpenik gorenena da: badaude zenbait arlo non ez dugun erabakitzeko gaitasunik izango, baina herriaren esku dauden erabakietan, herria izango da erabakiko duena, erabakia beste subjektuekin partekatuz subiranotasun konpartituko eremu batean, ala beste batzuk izango dira herriaren baitan erabakiko dutenak? Horretan datza erabakitzeko eskubideak, eta baita subsidiariorotasunak, maila lokaletik hasi eta giza eskubideen, giza duintasunaren eta autogobernuaren Nazioarteko Zuzenbideraino heltzen dena⁸⁵.

Zentzu honetan, *Herrien Europa* ideiak, esaterako, indarra hartu du⁸⁶. Europako instituzioen egiturak estatalak ez diren aktoreei parte hartzeko, aitortzea lortzeko, akzio sistemak sortzeko eta babesa bermatzeko aukera ematen baitie⁸⁷.

Hau esanda, THOMPSONen esaldi batekin amaituko nuke nazioarteko azterketaren atal hau: *‘las clases existen, independientemente de relaciones y luchas históricas, y luchan porque existen, en lugar de surgir su existencia de la lucha’*⁸⁸. Metafora bat eginaz eta egilearen balorazio honekin bat, esango nuke herriak existitu egiten direla, harreman edo tirabira historikoak aintzat hartu gabe, eta existitu egiten direlako borrokatu egiten dutela, kasu honetan, euren etorkizuna erabaki ahal izateko.

5. ONDORIOAK:

Ondorioen atal honetan, bi multzo bereizi nahiko nituzke. Lehenik, ondorio orokorrak aurkeztuko ditut, eta hauetatik abiatuz, ondorio zehatzak ondoren:

⁸⁴ CASTAÑOS J. R., ‘Soberanía y autodeterminación’, *Revista Viento Sur*, 158.zkia, 2018, 115.or.: ‘*Si no se reglamenta el derecho del pueblo vasco a decidir libremente su futuro, el nuevo marco político que sustituya al Estatuto no será nunca un marco democrático, y la estabilidad del sistema resultante estará cuestionada desde el inicio*’

⁸⁵ BENGOETXEA CABALLERO J., ‘El derecho a decidir. Un planteamiento desde la teoría del derecho internacional’, *Iura Vasconiae*, 2015, 359-360.or.

⁸⁶ LÓPEZ BASAGUREN A., ‘La independencia de Escocia en la Union Europea’, *Teoría y realidad constitucional*, 33.zkia, 2014, 71-75.or.

⁸⁷ KEATING M., ‘La integración europea... *op.cit*, 78.or.

⁸⁸ THOMPSON E. P., *Tradición, revuelta y consciencia de clase: estudios sobre la crisis de la sociedad preindustrial*, Barcelona, Crítica, 1979, 38-39 or.

LEHENA: Autodeterminazioaren kontzeptualizazio teorikoari gagozkiolarik, bai historikoki eta baita oraindik ere gaurkotasan sozial, politiko eta juridikoa duen auzia dela baieztatu genezake, hortaz, irtenbidea behar du.

Definizioz, autodeterminazioak herritarrek euren herriaren izaera politikoa xedatzeko ahalmena suposatzen du, erabakitze eskubidearekin estuki loturik. Bi ikuspegi besarkatzen ditu, kanpo ikuspegiak subiranotasunari egiten dio erreferentzia eta barne ikuspegiak, demokraziaren egikaritzari.

BIGARRENA: Autodeterminazioaren izaerari dagokionean, berau eztabaidagarria dela esan daiteke. Nazioarteko Zuzenbidean aurkitzen da bere oinarria eta bertan, eskubidetzat izendatzen da. Aldiz, bere egikaritzaren defentsa egiten den ala ez kontuan hartuz, doktrinan eztabaida dago: batzuen ustez printzipio teorikoa da, besteen ustez eskubide egikarigarria.

Nazioarteko aurreikuspenaren arabera, autodeterminazio eskubidea kolonialismora meneratutako lurraldeen kasuan edo herri bati eta bertako herritarrei oinarritzko eskubideak urratzean balia daiteke. Egoera hauetatik at, barne ordenamenduek aurreikusi beharko lukete autodeterminazio eskubidearen egikaritzea, estatuen izaera plurinazionala onartze aldera; izan ere, herriak egon badaude eta euren etorkizuna erabakitzearren dihardute borrokan.

HIRUGARRENA: Egungo eszenatokian, Estatuen artean, Estatu-nazioaren ereduak gailentzen da. Eredu honek defendatzen du pertsona multzo bat elkartu egiten dela Estatu bat sortzeko. Hortaz, herritarrei nazio politiko bat ezartzen zaie, ezaugarri kulturalak aintzat hartu gabe.

Historikoki, pentsatu izan da eskubide berdintasuna eta demokrazia bermatzeko subjektu egokia Estatu zentrala dela. Hortaz, Konstituzioek Estatu zentralen menpekotasunaren sendotzea bermatu dute, Estatu horietan zegoen nazionalitate aniztasuna ukatze aldera.

LAUGARRENA: Estatu-nazio ereduaren ezintasuna, ez dituen aldarrikapen nazionalistak asetzen. Hori horrela, sistema demokratiko plurinazionalak

aldarrikatzen dira, pluralismo nazionala instituzionalizatuz eta konstituzionalizatuz eta subiranotasunaren egikaritza banangarri eta banatua sustatuz.

Sistema demokratiko plurinazional hauetan, demokrazia printzipioa hobekiago bermatuko litzateke. Autodeterminazio eskubidearen egikaritzaren defentsa demokrazia printzipioaren defentsaren keinu adierazgarrienetakoa da.

Horrek *demosaren* ideia indartzen du: herria da bere etorkizuna erabakitzeke ahalmena duen subjektua.

Ondorio orokor hauetatik abiatuta, ondorio zehatzak ondorengoak lirateke:

BOSGARRENA: Espainiar ordenamenduan ez dugu autodeterminazio nahiz erabakitzeke eskubidearen oinarri juridikorik topatzen gaur egun; izan ere, Konstituzioaren helburua erabaki- eta akzio-unitate bat sortzea da eta autodeterminazioaren aurreikuspena kontraesana litzateke. Hala ere, espainiar Konstituzioak ez du demokrazia militante bat sustatzen; beraz, Konstituzioaren edukia aldatzeke aukera aurreikusten da eta zilegi da, Konstituzioak aurreikusitako prozedura bidez, legitimitate demokratikoaren, pluralismoaren eta legaltasunaren printzipioak errespetatuz.

SEIGARRENA: Autodeterminazio eskubidea aitortuz, bai erreforma konstituzionalaren bidez edo bai Konstituzioko I. xedapen gehigarriaren bidez, Kataluniaren eta Euskal Herriaren aldarrikapen nazionalistei erantzuna emango litzateke. Izan ere, nahiz eta aldarrikapen hauek luzaroan eman diren eta nahiz eta hauei erantzuna emateko bi Autonomia Erkidegoek saiakerak egin izan dituzten, besteak beste Autonomia Estatutuen bidez (adibidez, Ibarretxe Plana eta 2006ko Kataluniako Autonomia Estatutua), bi subjektuetako inork ezin du, gaur egun, independizatzeko euskarri juridikorik topatu barne ordenamenduaren baitan.

ZAZPIGARRENA: Mundu mailan, Katalunia eta Euskal Herriaren egoeran aurkitzen dira edo aurkitu izan dira beste hainbat herri: Montenegrok nekez lortu zuen independentzia, Kosovo ez dute Estatu denek Errepublikak kontsideratzen, Kurdistanen ofentsiba armatu bat burutu zen herriaren eskakizunak isiltzeke eta Silesia nazio apatridatztat hartzen dute askok.

Kanadak eta Erresuma Batuak ordea, Estatuaren izaera plurinazionala onartu eta sezesiorako aukera ahalbidetu dute Quebec eta Eskoziaren kasuan, erreferendumak antolatuz, nahiz eta azkenean independentziarik lortu ez.

Kanada eta Erresuma Batuek eskainitako irtenbideen ildotik, *Herrien Europa* ideiak indarra hartu du: Europako instituzioetan, estatalak ez diren aktoreen parte hartzea sustatu, aitortzea lortu, akzio sistemak sortu eta hauen babesak bermatu da.

AZKENA:

Aztertu dudanez, autodeterminazio eskubideak Nazioarteko Zuzenbidean topatzen du bere oinarria. Historiaren bilakaeraren ondorioz, bereziki II. Mundu Gerra ostean izan zuen zeresana eskubide honen egikaritzak, Europako potentzia nagusiek sorturiko inperioak desegin eta koloniek euren nortasuna eta autonomia berreskuratzeko. Ildo honetatik, gaur egun nazioarteko zuzenbidean topa daitezkeen erregulazioak kolonialismora meneratutako edo herri baten eskubide demokratikoak urratzen diren kasuetarako ahalbidetzen du autodeterminazio eskubidearen egikaritza.

Dena den, jakin badakigu aurreko testuinguruetan aurkitu ez arren, independentzia nahia duten herriak egon badaudela. Zentzu honetan, esango nuke Nazioarteko Zuzenbideak herri hauen eskakizunak ere asetu beharko lituzkeela, gaur egun autodeterminazio eskubidearen inguruan dagoen edukia zabalduz. Horrela, oinarrizko printzipioetako baten aplikazioa bermatuko litzateke, demokrazia printzipioarena.

Egile askok defendatzen dute autodeterminazio eskubidearen egikaritza demokraziaren bermeari adierazgarri dela. Hortaz, ulertzen dute Estatu bat demokratikoa bada, Estatu horrek eskubide hau aitortu behar duela. Zentzu honetan, PEREZ ROY Oren hitz batzuk ekarri nahiko nituzke gogora: bere ustez, autodeterminazio eskubidea da demokrazia osatzen duen eskubidea eta horregatik, demokrazia badago, indarrez autodeterminazio eskubidea ere egon behar da.

Egile honekin bat eginaz, herrien autodeterminazio eskubidearen aitortzearen eta egikaritzaren aldeko agertzen naiz. Nire iritziz, Nazioarteko Zuzenbideak zentzu malguago batean arautu beharko luke autodeterminazio eskubidea, ondoren, barne ordenamenduek, Nazioarteko Zuzenbidearen erdua jarraitzeko.

Munduaren antolaketa tirabira historikoen emaitza da: gaur egun, NBEk 193 Estatu barnebiltzen ditu. Estatu horietako askoren barnean, historia, hizkuntza, tradizio, kultura, sineste eta ideia ezberdineko komunitateak daude, arrazoi ezberdinengatik Estatu baten parte izatera igaro direnak.

Oso gertuko adibidea dugu Euskal Herriaren kasua eta Espainia mailan, baita Katalunia edo Galiziaren kasuak ere. Gainerako Autonomia Erkidegoek espainiar identitatearekin bat egiten duten bitartean, Euskal Herriak, Kataluniak eta Galiziak, euren berezitasunak direla eta, euren nortasuna aldarrikatzen dute. Hala ere, azterketa juridiko honen bidez ikusi dugu gaur egun Espainian gertatzen dena nazioarte mailan beste garai eta lurralde batzuetan ere eman dela. Tradizionala bezain egungoa den auzi baten aurrean gauden heinean, herriek soluzio bat merezi dute.

Nire ustez, soluzioa herriei, askatasunez, euren izaera politikoa erabakitzeko askatasuna aitortzea da; eta beraz, autodeterminaziorako eskubidea legeztatzea. Soluzio zilegi, demokratiko eta justua izateaz gain, aberasgarria ere badela iruditzen zait.

6. BIBLIOGRAFIA:

ALVAREZ CONDE, E.; GARCIA-MONCO, A.; TUR AUSINA, R.; *Derecho autonómico*, Tecnos, Madrid, 2013.

ASENSI E. L., “El desafío catalán. Un análisis descriptivo”, *Barataria: revista castellano-manchega de ciencias sociales*, 20.zkia, 2015, 45-60.or.

BANDRES SÁNCHEZ-CRUZAT J. M., “Derecho de autodeterminación y ordenamiento constitucional”, *Jueces Para La Democracia*, 30.zkia, 1997, 33-35.or.

BARCELO I SERRAMALERA M., “El derecho a decidir cómo instrumento constitucional para la canalización de problemas territoriales”, *Fundamentos: Cuadernos monográficos de teoría del estado, derecho público e historia constitucional*, 9.zkia, 2016, 361-391.or.

BASTIDA FREIJEDO F. J. eta ALÁEZ CORRAL B., “La acomodación constitucional de la secesión”, *Fundamentos: Cuadernos monográficos de teoría del estado, derecho público e historia constitucional*, 10.zkia, 2019, 249-254.or.

BENGOETXEA CABALLERO J., “El derecho a decidir. Un planteamiento desde la teoría del derecho internacional”, *Iura Vasconiae*, 2015, 339-361.or.

CASTAÑOS J. R., “Soberanía y autodeterminación”, *Revista Viento Sur*, 158.zkia, 2018, 114-118.or.

DIAZ-POLANCO H., “Autodeterminación, autonomía y liberalismo”, *Autonomía Indígenas, Diversidad de culturas, igualdad de derechos*, 6.zkia, 1998, 3-10.or.

DORREGO DE CARLOS A., “El referéndum sobre la independencia de Escocia”, *Cuadernos de pensamiento político FAES*, 34.zkia, 85-122.or.

EZEIZABARRENA X., ‘‘Derecho de libre determinaci3n y derecho a decidir: nueva soberan3a y Derechos Humanos en el siglo XXI’’, *Cuadernos Deusto de Derechos Humanos*, 90.zkia, 2017, 163-167.or.

GAGNON, A., ‘‘M3s all3 de la naci3n unificadora: alegato en favor del federalismo multinacional’’, *Institut d’Estudis Auton3mics-IVAP*, Oñati, 2009, 29 eta 30.or.

GARC3A DE CORT3ZAR F. eta AZCONA J.M., *El nacionalismo vasco*, Historia 16 Argitaletxea, Madril, 1999.

HERRERO Y RODR3GUEZ DE MIÑ3N M. eta AREILZA J. M., *Idea de los Derechos Hist3ricos*, Espasa Calpe, Madril, 1991.

- ‘‘Que son y para qu3 sirven los Derechos Hist3ricos’’, *Real Academia de Ciencias Morales y Pol3ticas*, 44.zkia, 1999, 309-322.or.

IGLESIAS B3REZ, M., ‘‘La Ley de Partidos Pol3ticos y el Test de Convencionalidad. El di3logo entre el Tribunal Constitucional y el Tribunal Europeo de Derechos Humanos en torno a la ilegalizaci3n de Herri Batasuna y Batasuna’’, *Teor3a y Realidad Constitucional*, 25.zkia, 2010, 567-586.or.

KEATING M., *Plurinational Democracy*, Oxford University Press, Oxford, 2001.

- ‘‘So many nations, so few states: territory and nationalism in the global era’’, GAGNON A, TULLY J, *Multinational Democracies*, Cambridge University Press, Cambridge, 2001, 39-64.or.
- ‘‘La integraci3n europea y la cuesti3n de las nacionalidades’’, LETAMENDIA, F., AHEDO, I.; ZELAIA, M. (Koord.), *Democracia, ciudadan3a y territorialidad*. IVAP, Oñati, 2008, 65-78.or.

LACASTA ZABALZA J. I., ‘‘El derecho de autodeterminaci3n’’, *Diccionario Cr3tico de los Derechos Humanos I*, Universidad Internacional de Andaluc3a, 2000, 295-304.or.

LETAMENDIA F., ‘‘La autodeterminaci3n: evoluci3n hist3rica, tratamiento constitucional y pol3micas actuales’’, *Revista Viento Sur*, 71.zkia, 2003, 1-128.or.

LÓPEZ BASAGUREN A., ‘‘De Quebec al País Vasco’’, *FP: Foreign Policy Edición Española*, 32.zkia, 2009, 51-55.or.

- ‘‘La secesión de territorios en la Constitución Española’’, *Revista de derecho de la Unión Europea*, 25.zkia, 2013, 87-106.or.
- ‘‘La independencia de Escocia en la Union Europea’’, *Teoría y realidad constitucional*, 33.zkia, 2014, 69-97.or.
- ‘‘Escocia’’, *Revista española de derecho constitucional*, 104.zkia, 2015, 135-167.or.
- ‘‘Demanda de secesión en Cataluña y sistema democrático. El *procés* a la luz de la experiencia comparada’’, *Teoría y realidad constitucional*, 37.zkia, 2016, 163-186.or.

LÓPEZ PAYERO L., *El derecho de autodeterminación de los pueblos: análisis crítico del marco constitucional español desde la filosofía jurídico-política*, Diss. Universidad de Oviedo, 2014.

MAJOR, M. A, *From the nation-state to plurinational democracy: the redefinition of nationalist conflicts in the context of European integration*, Doktore tesia, Leioa, 2017.

MANZANARES CARPINTERO C. M., ‘‘Cataluña un pueblo sin nación’’, *TLATEMOANI Revista Académica de Investigación*, 26.zkia, 2017, 109-125.or.

MARTINEZ JIMENEZ A., ‘‘El derecho de autodeterminación de los pueblos en el siglo XXI. La secesión, remedio como consecuencia de graves violaciones de derechos humanos’’, Doktore Tesia, Universidad Carlos III, Getafe, 2014.

MOLINA ÁLVAREZ DE CIENFUEGOS I., ‘‘Secesión y unidad en democracias avanzadas’’, *Política exterior*, 186.zkia, 2018, 56-64.or.

MONREAL ZIA G., ‘‘Los derechos históricos vascos: poder constituyente limitado o instituciones concretas’’, *Iura Vasconiae: revista de derecho histórico y autonómico de Vasconia*, 16.zkia, 2019, 45-120.or.

MORALES ESCOBAR, A., ‘Independencia de Montenegro, consecuencia natural de autodeterminación y guerras’, *OASIS*, 12.zkia, 2007, 171-183.or.

MUÑOZ MACHADO, S., *Derecho Público de las Comunidades Autónomas*, Iustel, Madril, 2007.

NUEVO LOPEZ P., ‘Reforma constitucional y reforma del Estado autonómico’, *Revista de estudios políticos*, 182.zkia, 2018, 281-296.or.

NUÑEZ HUESCA R. ‘Así se blindó Canadá frente a su problema separatista’, *La Gaceta*, 2017ko uztailearen 24a.

OLGUÍN, F., ‘La cuestión de Quebec y la unidad de Canadá: retos, riesgos y perspectivas’, *Revista mexicana de política exterior*, 51.zkia, 1997, 136-164.or.

OSPINA MORALES G., ‘La formación del Kurdistán y la seguridad societal. Un análisis del gobierno kurdo en el norte de Irak, los grupos minoritarios y la lucha contra el Estado Islámico’, *Revista Forum*, 13.zkia, 2018, 11-31.or.

PEDRERO HERNÁNDEZ M. A., "El reencuentro de Alemania y Polonia y el papel de la OTAN y de la Unión Europea en su reconciliación: (relevancia de ese proceso histórico en tres periódicos españoles)" ,tesis doctoral, Universidad Carlos III de Madrid, 2014.

PORTILLA GÓMEZ J. M., ‘El devenir histórico y legal de Kosovo’, *Anuario Mexicano de Derecho Internacional*, 2012, 65-106.or.

QUIROGA FERNÁNDEZ DE SOTO A., ‘Amistades peligrosas: la izquierda y los nacionalismos catalanes y vascos’, *Historia y Política: Ideas, Procesos y Movimientos Sociales*, 20.zkia, 2008, 97-127.or.

RIDAO J., *El derecho a decidir*, RBA, Barcelona, 2014.

RODRÍGUEZ-ZAPATA PÉREZ J., ‘Sobre el derecho de autodeterminación y su compatibilidad con la Constitución’, *Teoría y Realidad Constitucional*, 3.zkia, 1999, 103-124.or.

RUIZ VIEYTEZ E., ‘Regulando el derecho a decidir: una propuesta’. Naciones y Estados en el siglo XXI, *Cuadernos RIEV*, 11.zkia, 2015, 216-238.or.

SAIZ ARNAIZ A., ‘El Derecho de la Constitución y el «derecho» a la secesión. Una primera aproximación’, LETAMENDIA, F., AHEDO, I.; ZELAIA, M. (Koord.), *Democracia, ciudadanía y territorialidad*, IVAP, Oñati, 2008, 127-140.or.

SANJAUME-CALVET M., ‘Federalismo, pluralismo nacional y autodeterminación: la acomodación de Cataluña y Quebec’, *Federalismo, autonomía y secesión en el debate territorial español. El caso catalán*, Le Manuscrit, 2015, 151-188.or.

SARTORI G., ‘Democracia’, *Revista Ciencia Política*, 13.zkia, 2019, 117-151.or.

TAJADURA TEJADA J., ‘La STC 42/2014, de 25 de marzo, respecto a la Resolución del Parlamento de Cataluña 5/X, de 23 de enero de 2013, por la que se aprueba la declaración de soberanía y del derecho a decidir del pueblo de Cataluña’, *La última jurisprudencia relativa al Parlamento*, 2016, 57-90.or.

THOMPSON E. P., *Tradición, revuelta y consciencia de clase: estudios sobre la crisis de la sociedad preindustrial*, Barcelona, Crítica, 1979.

TIERNEY S., ‘Naciones sub-estado y el Estado constitucional: incrustar principios normativos en una constitución plurinacional’, LETAMENDIA, F., AHEDO, I.; ZELAIA, M. (Koord.), *Democracia, ciudadanía y territorialidad*. IVAP, Oñati, 2008, 79-95.or.

TUDELA ARANDA J., ‘La disposición adicional primera de la Constitución y los nuevos Estatutos de Autonomía. La historia como legitimación de la autonomía’, *Revista de Administración Pública*, 173.zkia, 2007, 143-181.or.

- ‘El derecho a decidir y el principio democrático’, *Teoría y Realidad Constitucional*, 37.zkia, 2016, 477-497.or.

VICIANO PASTOR R., "El derecho de autodeterminación en nuestra reciente vida constitucional: análisis y problemática", *Revista de Derecho Político*, 34.zkia, 1991, 143-188.or.

VIVANCOS COMES M., *La propuesta de nuevo estatuto político de la comunidad de Euskadi. Análisis de un estatuto de segunda generación*, Diss. Universitat de València, 2011.

- ARAUDIA:

Nazio Batuen Gutuna, 1945eko urriaren 27koa (1990ko azaroaren 16ko EAO, 275.zkia).

Nazio Batuen Erakundeko 1966ko abenduaren 16ko Nueva Yorkeko Eskubide Zibil eta Politikoen eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunak.

1514 (XV) Batzar Orokorraren Ebazpena, 1960ko abenduaren 14koa.

2625 (XXV) Batzar Orokorraren Ebazpena, 1970eko urriaren 24koa.

1978ko abenduaren 29ko espainiar Konstituzioa (1978ko abenduaren 29ko EAO, 311.zkia).

1932ko Kataluniako Autonomia Estatutua, 1932ko irailaren 15ekoa (1932ko irailaren 21eko Gaceta de Madrid, 265.zkia).

3/1979 Lege Organikoa, 1979ko abenduaren 18koa (abenduaren 22ko EAO, 306.zkia).

6/2002 Lege Organikoa, 2002ko ekainaren 27koa (2002ko ekainaren 28ko EAO, 154.zkia).

6/2006 Lege Organikoa, 2006ko uztailaren 19koa (uztailaren 20ko EAO, 172.zkia).

19/2017 Kataluniako Legea, 2017ko irailaren 6koa (2017ko irailaren 6ko KAO, 7449A.zkia).

Kataluniako Parlamentuaren 5/XII Mozioa, 2018ko uztailaren 5ekoa.

Kataluniako Parlamentuaren 92/XII Ebazpena, 2018ko urriaren 11ekoa.

Kataluniako Parlamentuaren 534/XII Ebazpena, 2019ko uztailaren 25koa.

- JURISPRUDENTZIA ETA IRIZPENAK:

AGE, 2003ko martxoaren 27koa, Herri Batasuna, Euskal Herritarrok eta Batasuna alderdi politikoen legaltasun ezari buruzkoa.

KAE 175/2001, uztailaren 26koa.

KAE 42/2014, martxoaren 25koa.

KAE 114/2017, urriaren 17koa.

KAE 136/2018, abenduaren 13koa.

KAE 98/2019, uztailaren 17koa.

KAA 182/2019, abenduaren 18koa.

KAA 18/2020, otsailaren 11koa.

Estatuko Kontseiluaren Irizpena, 892/2018 zenbakiduna, 2018ko urriaren 25koa.

OHARRA:

Egoerak behartuta material ugari ezin erabili gelditu naiz lan hau egiterako orduan. Horien artean honako hauek aipatuko nituzke:

AJA, Eliseo, y otros. *El sistema jurídico de las Comunidades Autónomas*, 2ª edición. Tecnos. 1986.

- *Estado autonómico y reforma federal*. Alianza. 2014

BILBAO UBILLOS J. M., ‘‘La secesión de Quebec’’, *Cuadernos de Alzate: revista vasca de la cultura y las ideas*, 21.zkia, 1999, 83-118.or.

DE BLAS GUERRERO, A., ‘‘El estudio de la autodeterminación y la secesión’’, *Revista del Centro de Estudios Constitucionales*, 15.zkia, 1993, 9-17.or.

DE VERGOTTINI G., ‘Referéndum y secesión’, *Teoría y realidad constitucional*, 43.zkia, 2019, 103-119.or.

DION S., ‘Secesión y democracia’, *Página abierta*, 241.zkia, 2015, 33-40.or.

EGILE ASKO. *El funcionamiento del Estado Autonómico. Ministerio de Administraciones Públicas*. 1999

FERNÁNDEZ DE SANTOS ORTIZ F., ‘Roland Vaubel: “no estoy a favor de la secesión, sino del derecho a la secesión”’, *Executive excellence: la revista de liderazgo, la gestión y la toma de decisiones*, 106.zkia, 2013, 6-10.or.

FERNÁNDEZ FARRERES, Germán. *Estado Autonómico y Tribunal Constitucional*. Iustel. 2005

GONZÁLEZ VILA, T., ‘Derecho a decidir, autodeterminación, secesión’, *Acontecimiento: órgano de expresión del Instituto Emmanuel Mounier*, 113.zkia, 2014, 46-49.or.

LAPORTA SAN MIGUEL, F. J., ‘Autodeterminación o derecho de secesión’, *La aventura de la historia*, 1.zkia, 1998, 22-24.or.

LÓPEZ BASAGUREN A., ‘Escocia y el referéndum por la independencia’, *Cuadernos de Alzate: revista vasca de la cultura y las ideas*, 46-47.zkiak, 2013, 127-140.or.

- ‘Crisis del sistema autonómico y demandas de secesión’, *Teoría y derecho: revista de pensamiento jurídico*, 19.zkia, 2016, 46-61.or.

LÓPEZ BOFILL H., ‘Cataluña y la posibilidad de la secesión’, *Teoría y derecho: revista de pensamiento jurídico*, 19.zkia, 2016, 90-103.or.

LÓPEZ JURADO ROMERO DE LA CRUZ, C., ‘La secesión de territorios no coloniales y el soberanismo catalán’, *Revista electrónica de estudios internacionales (REEI)*, 26.zkia, 2013, 22.or.

MUÑOZ MACHADO, Santiago. *Derecho Público de las Comunidades Autónomas*. 2ª ed. Iustel. 2007

TAJADURA TEJADA J., "La Constitución del Estado de las Autonomías", *Revista de estudios políticos*, 123.zkia, 2004, 437-447.or.

- "Proceso Constituyente, Soberanía y Autodeterminación", *Revista de estudios políticos*, 123.zkia, 2004, 447-456.or.
- "Kosovo", *Temas para el debate*, 159.zkia, 2008, 76-78.or.
- "El "derecho a decidir", el Estado de Derecho y la democracia", *La autodeterminación debate*, 2014, 213-224.or.
- "Federalismo y plurinacionalidad", *Claves de razón práctica*, 255.zkia, 2017, 62-69.or.
- "La problemática jurídica de la secesión", *La Constitución de los españoles*, 2019, 307-323.or.

TORNOS MAS J., "Constitucionalismo y secesión", *Memorial para la reforma del Estado*, 2.zkia, 2016, 1413-1429.or.

VIVER I PI-SUNYER, Carles. *Materias competenciales y Tribunal Constitucional*. Ariel. 1989.